

**EUSKARAREN
V. PLAN ESTRATEGIKOA
2023 – 2032
ESKORIATZAKO UDALA**

aro**a**

euskara indarberritzeko
eta euskaldunok ahalduntzeko
marko estrategikoa



AURKIBIDEA

1.- AURREKARIAK	3
2.- PLANA ZERGATIK eta ZERTARAKO	4
3.- DIAGNOSTIKOA	7
3.1. POPULAZIOA	7
3.2. GALDETEGIA	13
3.3. AHOLKU BATZORDEA	15
3.4. UDAL EGITURA	21
3.5. EREMU ESTRETEGIKOAK FINKATZEA	22
4.- PLAN ESTRATEGIKOA	23
0. NAHI ESTRATEGIKOA, MISIOA ETA IKUSPEGIA	23
1. EREMU ESTRATEGIKOA – Haur eta nerabeen aisialdia euskalduntzea	24
2. EREMU ESTRATEGIKOA – Etorri berriak euskarara hurbiltzea	29
3. ERE. EST. – Arlo sozioekonomikoa, merkataritza eta ostalaritzan euskararen erabilera sustatzea	32
4. ERE. EST. – Euskaldunak eta euskaltzaleak ahaldundu eta komunitatea sortzea	35
5. ERE. EST. – Udal baliabideak behar berrietara egokitzea	37
5.- LANA EGITEKO MODUA	41
6.- JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	42
ERANSKINAK:	
1. ERANSKINA	44
2. ERANSKINA	45



1

AURREKARIAK

Udalaren eskumenak

Udalok urte asko daramagu euskara normalizatzeko lanean, 1982ko Euskararen Legean oinarrituta lehenik, eta 2016az geroztik, 2/2016 Udal Legean oinarrituta, hain zuzen ere, lege horren 7.artikuluaren udalei udalerrian euskara bultzatzeko eskumen propioak aitortzen baitzaizkie.

Udalaren euskara planak

Udaletan 2 euskara plan onartu ohi ditugu, biak ere Eusko Jaurlaritzak finkatutako gidalerroei jarraituz:

- Batetik, **erakundearen** barrurako hizkuntza plana dago: hizkuntza-politika, hizkuntza irizpideak eta ekintza-plana jasotzen dituen. Horri, “Erabilera Plana” deitu ohi diogu.
- Bestetik, **herrian** euskara sustatzeko plana dago, udalerriko eremu desberdinetan euskararen egoera normalizatzea helburu duena.

Honako txostenean, bigarren plan horri buruzkoak jasoko dira, hain zuzen ere, 2024-2032 epean, AROA markoan oinarrituta Eskoriatzan euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoa eskaintzeko asmoz.

Azken 20 urteetan, herrian euskara sustatzeko ondorengo planak onartu ditu Eskoriatzako Udalak:

- **2005–2009** – Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) (2005/12/29an onartutakoa)
- **2010–2015** – Euskara Biziberritzeko II. Plan Estrategikoa (EBPN) (2010/03/31n onartutakoa)
- **2015–2017** – Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) (III. plangintzaldia) (2014/12/16an onartutakoa)
- **2018–2022** – Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) (IV. plangintzaldia) (2018/12/18an onartutakoa)



Plan guztiak Eusko Jaurlaritzak emandako irizpide eta markoan oinarrituta onartu izan dira. Oraingoan, azken plana amaitu zenetik 2 urte pasa dira, hain zuzen ere IV. plangintzaldia bukatu eta V.a egiteko Eusko Jaurlaritzak AROA markoa onartu eta hura betetzeko irizpideen zain egon baikara.

Jaurlaritzak 2024ko otsailean onartu zuen AROA *euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduztzeko marko estrategikoa*, eta hartan oinarritutako Plana diseinatu eta onartu ahal izateko, 2024.urtean honako ekintzak egin ditugu:

- **Datu bilketa:** euskararen ezagutza eta erabilera, familia-hizkuntza, inmigrazio datuak... batu dira, azterketa objetiboa egiteko.
- **Galdetegia:** 2024ko maiatzean herritarren eta eragileen iritzia jasotzeko galdetegia egin zen. ([Hemen](#))
- **Aholku batzordea:** Eskoriatzan euskararen normalkuntzan sentsibiltate berezia erakutsi izan duten 9 lagunekin (+ udaleko 2 teknikari eta zinegotzia) Aholku batzordea sortu zen. Aholku batzorde honen helburua: [Eskoriatzan euskararen normalizaziorako non eragin nahi den eta esfortzuak non jarri behar diren hausnartzea eta daukaguna/izan beharko genukeena planifikatzea](#).

2

PLANA ZERGATIK ETA ZERTARAKO

Zer da «euskara-plan» bat? Ba, hitz gutxitan esanda, hauke: **datozen urteotan Udalak euskararen arloan zein lehentasun izango dituen eta zer egin nahi duen markatzen duen dokumentua, herriko zenbait eragilerekin prestatua eta adostua.**

Euskararen egoera aldakorra da ezinbestean eta, beraz, komeni da etengabe aztertzea nola gauden eta gaiari buruzko gogoeta egitea, Udalak aplikatu beharreko politikak eta hartu beharreko neurriak zehaztu eta, hartara, garai bakoitzeko premiei ahalik eta ondoen erantzuteko.

Azken urteotan aldaketa garrantzizkoak gertatu dira euskararen munduan: administrazioaren eta euskalgintzaren arteko adostasun berriak (Euskaraldia), hizkuntza-teknologietan eta ikus-entzunezkoen arloan aurrerapenak, EAEko Udal



Legearen eta hori garatzen duen dekretuaren onarpena, euskararen kaleko erabilerak hartu duen beheranzko joera orokorra, bizimodua aldrebestu zigun pandemiak eragin duen aldaketa-soziala eta indibidualtasunerako joera, harremantzeko modu berriak (sare sozialak, whatsapp...), herritar berriak eta identitate pluralak, euskararen aurkako oldarraldi judiziala...

Fase-aldaketa batean gaudela uste dute euskalgintzako eragileek: **aurreko fasea agortu da, eta une egokia da gogoeta egin, indarrak bildu eta aurrerapauso sendoak emateko. Jon Sarasuak** esana da: «Aro berri batean gaude. Krisi momentuak gauzak birpentsatzeko uneak dira. Euskal komunitateak erreakzio bat behar du une honetan. Orain dela 60 urte egon zen erreakzio indartsu bat, mundu mailan gutxi egon diren modukoa. Hortik gatoz. Baina momentu honetan erreakzio bat izan behar dugu, kontrako faktoreak asko direlako eta berriro ere indartzen dabiltzalako. Aldeko indarra egon badago, **hori antolatzean datza auzia. Ondo antolatu behar dugu, bai komunitate ikuspegitik, baita gobernu edo erakunde ikuspegitik ere**».

Horrez gain, ikerketa berriek kontzeptu berriak jarri dituzte mahai gainean eta bereziki aipatzekoa da **Iñaki Lurrebasok** «gaitasun erlatiboari» buruz egindako ekarpena. « Hizkuntza gaitasuna gure ahulgune nagusietakoa da. Hitzunen %8a bakarrik moldatzen da euskaraz hobeto, %85a erderaz hobeto moldatzen da». **«Euskal hiztun benetan gaituak ekoiztea lehen mailako helburua da.** Zurrunbilo erraldoiak datoz, hizkuntza gutxituentzako gauzak erraztuko ez dituztenak. Olatu berri baten beharra dago, **euskara politiken lehen lerrora ekartzea ezinbestekoa da.**»

Egoera horri aurre egiteko oinarritzko 6 premia identifikatzen ditu Lurrebasok:

1. Euskara lehentasunera ekarri.
2. Euskaltzaletasuna sendotu.
3. Erdara nagusi den eremuetan asmatu beharra.
4. Arnasguneak sendotu/hedatu beharra.
5. Politika integralera jauzia; zeharlerrotasunez.
6. Irudimenez jokatu.

Oro har, Euskal Herrirako egiten den irakurketak Eskoriatzarako ere balio digu: asko aurreratu dugu arlo batzuetan, baina bidean erronka berriak agertu zaizkigu: aldaketa demografikoa, hizkuntza- eta kultura-aniztasuna, ikastetxeen zailtasunak ikasle batzuk euskalduntzeko eta beste batzuk euskaldun aktibo izateko, erabilerari eusteko zailtasunak bereziki eremu informaletan, herritarren kontzientziazioan etengabe eragin beharra, ostalaritza eta merkataritzan euskararik ez duten herritarren presentzia...

Zailtasunak zailtasun, euskara sustatzeko politika ausartak egiteko une egokia da.



Erronka berriei aurre egiteko, **geldialdia egin eta aurrerantzean zein bide hartu hausnartu dugu.**



3

DIAGNOSTIKOA 2024

3.1 POPULAZIOA

Biztanleria. Eskoriatzan 4244 lagun daude erroladatuta 2024ko urtarilaren 1ean. 2000. urtean biztanleria ez zen 4000 biztanlera iristen eta 2010ean 4082koa zen. Beraz, biztanlerian gorakada gertatu da azken 20 urteetan, eta bereziki, azken 10 urteetan.

BIZTANLEAK


2024/01/01

4244

Generoari dagokionez, biztanleen %50,5 emakumezkoak dira eta %49,5 gizonezkoak.

Atzerrian jaiotako herritarrek duela 20 urte %1,25 ziren eta duela 10 urte %5. 2024. urtean, %10 dira.

Jatorriari dagokionez, azken urteetan batez ere Hego Ameriketatik etorritakoen taldeak egin du gora.



ETORKINAK

guztira

426



• **EBtik kanpokoak 307, gehienak:**

- Colombia 68 (42E / 26G)
- Pakistan 59 (26E / 33G)
- Maroko 57 (27E / 30G)
- Honduras 27 (20E / 7G)
- Venezuela 14 (7E / 7G)


• **EBkoak 119, gehienak:**

- Portugal 63 (28E / 35G)
- Errumania 20 (10E / 10G)

• **Oharra:** EB = Europar Batasuna

Adin txikiko etorkinen kopuruak azken 20 urteetan izan duen gorakada, oso kontuan hartzekoa da. 2000.urtean ia ez zegoen jatorri atzerritarreko haurrik. Eta 2023.urtean jaio ziren 23 haurretatik 11k gurasoetako bat edo biak atzerritar jatorrikoak dituzte, hau da jaiotakoen ia erdiak atzerriko jatorria du.

ETORKINAK



2024

HH	0 – 5	33
LH	6 – 11	25
DBH	12 – 16	21
Batxi/Lanbide	17 – 18	2
GUZTIRA		81



ETORKINAK JAIOTZAK

	JAIOTZAK GUZTIRA	ATZERRITAR JATORRIDUNAK	
2020	16	6 (%37,5)	Herrigabea 1 / Pakistan 1 / Maroko 2 / Errumania1
2021	27	10 (%37)	Herrigabea 2 / Pakistan 1 / Maroko 2 / Errumania 2 / Hego Amerika 2
2022	34	13 (%38)	Pakistandarra 4 / Marokoarrak 1 / Hego Amerika 4
2023	23	10 (%43)	Herrigabeak 4 / Pakistandarrek 2 / Marokoarrak 1 / Hego Amerika 2

Datu horiek 2024ko Diagnostikoa egiteko baliatutakoak dira, baina Planaren diseinua 2025 urte hasiera arte luzatu denez, 2025eko urtarilaren 1ari dagozkion biztanleria datuak ere txertatzea erabaki da. Hauek dira:

Biztanleak guztira: 4276

Emakumezkoak: 2118

Gizonezkoak: 2158

Etorkinak: 468

- EBkoak: 115
- EBtik kanpokoak: 353


2024ko jaiotzak: 19

- Guraso BIAK atzerritar jatorrikoak: 9 (%47)
- Gurasoetako BAT atzerritar jatorrikoa: 4 (%21)
- Guraso BIAK bertako nazionalitatea: 6 (%9)


Euskarari dagokionez, hau da Eskoriatzako biztanleen profila:

EZAGUTZA (2021eko datua)

2 urteko eta gehiagoko biztanleria
euskara-maila orokorraren arabera



ERABILERA (2021eko datua)




ERABILERAREN BILAKAERA (2003 – 2021)





ERABILERA ADINAREN ARABERA (2021eko datua)


9. Grafikoa eta Taula. HIZKUNTZEN KALE ERABILERA ADINAREN ARABERA. ESKORIATZA, 2021 (%)



ETXEKO HIZKUNTZA (2021eko datua)

2 urteko eta gehiagoko biztanleria
etxeke hizkuntza

arabera. 2021





LABURPENA

- **Biztanleak:** 4244 (2024/01/01)
- **Generoa:** %50,5 emakumeak // %49,5 gizonak
- **Ezagutza:** euskaldunak %59, ia-euskaldunak %17, erdaldunak %23 (2021 EUSTAT)
- **Erabilera:** euskara %29, gaztelera %70, besteak %1 (2021 KLUSTERRA)
- **Etxeko hizkuntza:** euskara %26, gaztelera %54, bietara %17, besteak %3 (2021 EUSTAT)
- **Etorkinak:**
 - Biztanleria osoaren %10 (2024/01/01)
 - Gehienak: Kolonbia, Portugal, Pakistan eta Maroko.
 - Adin txikikoak: guztira 84. Horietatik HHkoak 33 eta LHkoak 25
 - Jaiotzak: 2023an jaiotzen %43 atzerriko jatorridunak
 - Jaiotzak: 2024an jaiotzen %47 atzerriko jatorridunak 2 gurasoak, eta %21 atzerriko jatorridunak gurasoetako 1.
- **Aipatzekoak:**
 - Euskararen ezagutzaren bilakaera positiboa ia-euskaldunetan dago, eta igoera oso txikia da. Euskaldunen portzentaia azken 20 urteetan ez da aldatu, hasierako berbera da.

		2001	2006	2011	2016	2021
Eskoriatza	-Euskaldunak	59,43	58,22	58,78	62,58	59,54
	-Ia-euskaldunak	14,96	17,34	20,66	13,85	17,44
	-Erdaldunak	25,61	24,44	20,56	23,56	23,02

- **Erabileran,** azken 20 urteetan ez dago bilakaera positiborik, datua hasierako berbera da, eta azken 10-15 urteetan erabilerak beheraka egin du.
- Eskoriatzako etxeen %26an euskara da hizkuntza bakarra eta %17an euskara eta gaztelera biak.
- **Etorkin kopurua** etengabeko gorakadan dago, eta HH, LH nahiz DBHn ikasten ari diren Familia Atzeritarreko Jatorria duten Ikasleen (FAJI) kopurua oso esanguratsua da. Gainera, atzerriko jatorria duten familietakoak izanik bertan jaiotzen diren haurren kopuruak ere etengabeko igoera du. Horri gehitu behar zaio, Hego Ameriketatik datozen herritarrak direla atzeritar jatorriko erroldatu gehienak, eta horrek esan nahi du hizkuntza ofizial nagusia (gaztelera) dagoeneko ezagutzen dutela.



3.2 GALDETEGIA

AROA izeneko Plan Estrategiko hau egiteko, eta herritarren iritzia ezagutzeko, 2024ko maiatzean galdetegi bat zabaldu da, eta hilabeteko epean ekarpenak jaso dira. Google Forms erabilia egin da galdetegia. Udal webgunean publikatu da albistea eta galdetegia batez ere whatsapp-ez zabaldu da.

Guztira 82 erantzun jaso dira, 70 euskarazko galdetegian eta 12 gaztelerazkoan.

Galdetegia erantzun duten gehienak 46-65 adin tartekoak izan dira, gehienak emakumezkoak eta euskaraz ondo hitz egiten dutenak. Aipatzekoa da euskararik ez dakiten edo euskaraz ondo moldatzen ez diren 18 lagunek ere bete dutela.

DATUAK

ERANTZUNAK: 82

- 70 euskaraz (%85)
- 12 gazteleraz (%15)

GENEROA

- 47 emakume (%57)
- 35 gizonetako (%43)

ADINA

- 18 – 29 -> 10 (%12)
- 30 – 45 -> 29 (%36)
- 46 – 65 -> 38 (%46)
- + 66 -> 5 (%6)

EZAGUTZA

- 64 euskaraz ondo (%78)
- 13 erdixka (%16)
- 5 ezer ez (%6)

EGINDAKO GALDERAK eta GALDEREN ERANTZUNAK

Euskarak gora ala behera egin du?

	Euskarazko erantzunak	Gaztelerazko erantzunak	Iritzia guztira
Gora	5 - %7,5	5 - %41,7	10 - %12
Behera	40 - %51,1	2 - %16,7	42 - %51
Mantendu egin da	25 - %35,7	5 - %41,7	30 - %36

- 18 -29 urte bitartekoen %70ak uste du behera egin duela
- 30 – 45 urte bitartekoen %70ak uste du behera egin duela
- 46 – 65 urte bitartekoen %48ak uste du behera egin duela eta %41ak mantendu.
- 66 urtetik gorako guztiek esaten dute mantendu egin dela



Non ikusten duzu euskara indartsuen? Non ikusten duzu ahulen?

	Euskarazko erantzunak	Gaztelerazko erantzunak
INDARTSUA	• Kulturean • Eskolan • Haurren artean • Familian • Harreman instituzionaletan	• Hezkuntzan • Haurren artean • Gazteen artean (%50)
AHULEN	• Gazteen artean • Kirolean • Ostalaritzan • Sare sozialetan	• Helduen artean • Sare sozialetan • Gazteen artean (%25) • Kirolean • Aisialdian

Non eragin beharko litzateke lehentasunez?

Euskarazko galdetegian

		0-9
1	Haurren aisialdian	7,3
2	Etorri berrien harrera eta integrazioan	6,3
3	Ostalaritza eta merkataritzan	6,2
4	Euskararekiko sentsibilizazioan	6
5	Helduen aisia	5,9
6	Euskarazko erreferenteetan	5,9
7	Administrazioan (udala, anbulatorioa, epaitegia)	5,8
8	Lan-munduan	5,6
9	Herriko euskaltzaleak elkartzen	5,1

Gaztelerazko galdetegian

		0-9
1	Haurren aisialdian	4,25
2	Ostalaritza eta merkataritzan	4,25
3	Euskarazko erreferenteetan	4,08
4	Lan-munduan	4,08
5	Administrazioan (udala, anbulatorioa, epaitegia)	4
6	Euskararekiko sentsibilizazioan	3,8
7	Etorri berrien harrera eta integrazioan	3,75
8	Helduen aisia	3,4
9	Herriko euskaltzaleak elkartzen	3,33



3.3 AHOLKU BATZORDEA

Maiatzean galdetegia eginda, 2024ko ekainean Aholku batzordea eratu da. Aholku batzorderako udal euskara zerbitzuak Eskoriatzan euskalgintzan ibilitako edo diharduten 10 bat lagun identifikatu eta gonbidapen zuzena egin die.

Honako hauek dira Aholku batzordearen partaideak:

1. Andoni Bengoa – Axtroki euskara elkarteko kide izandako
2. Ane Arrieta – Ixotu euskara taldeko kide izandakoa
3. Arantzazu Loidi – Bertsolaria
4. Iñigo Beitia – Euskalgintzan ikertzailea
5. Larraitx Garai – Loramendi elkarteko teknikari izandakoa eta eskola publikoko gurasoa
6. Maddi Iregi – Bai Euskarari elkarteko teknikaria eta Arizmendi ikastolako gurasoa
7. Maider Herze – Arizmendi ikastolako irakaslea eta Axtroki elkarteko kide izandakoa
8. Maider Landa – Euskara zinegotzi izandakoa
9. Maje Umerez – Udaleko hizkuntza normalizatzailea
10. Xabi Arenaza – Ixotu euskara elkarteko dinamizatzaile eta bertso eskolako sustatzaile izandakoa
11. Dinamizatzaileak: Xabi Uriarte euskara zinegotzia eta Mari Carmen Arrieta udal euskara teknikaria.

Eskertzekoa da, benetan, lan-bileretan parte hartu duten herritar horien prestutasuna eta laguntza. Eta hauek izan dira egin ditugun 3 bileretan landutakoak:

- Helburua: **Eskoriatzan euskararen normalizaziorako non eragin nahi den eta esfortzuak non jarri behar diren hausnartzea eta daukaguna/izan beharko genukeena planifikatzea.**
- Bilera bakoitzean landutakoa:
 - Lehen a: Plana azaldu eta diagnostikoa partekatu.
 - Bigarrena: AMIA osatu eta lehentasunezko eremuak identifikatu. Gainera, gaur egungo ikerlan berriak ere ezagutu dira.
 - Hirugarrena: Plan Estrategikoaren 1.zirriborroa osatu eta onarpenerako prestatu.

Lehenengo bileran xehe-xehe aztertu ditugu euskararen gaur egungo egoera eta galdetegian jasotako erantzunak. Egoera hobetzeko ideia-sorta osatu dugu.



Bigarren bileran, AMIA osatu eta teorizazio eta ekarpen berriak izan ditu aztergai Aholku batzordeak, bereziki **Iñaki Iurrebasok** 2023an argitaratu zuen doktore tesiari buruz LARRUN aldizkariak argitaratutako artikulua, hain zuzen ere, orain arteko ikuspegiaren aldaketa proposatzen duelako. Teorizazioa berritzailea delako, Plan hone-tan jasota uztea erabaki da.

Iñaki Iurrebasok bere lanean, astindu egin du azken urteetan euskararen egoera la-burtzeko erabili izan den ideia ohikoena, indargunea hizkuntza gaitasunean eta ahul-gunea erabilera dagoela dioena. Datuekin erakutsi du hiztunek ez diotela bizkar ema-ten euskarari. Euskaldunen gehiengoak erdaraz hobeto egiten duela kontuan hartua, erabilera altua dela ondorioztatu du, besteak beste. Azken urteetan nagusitu diren diskurtsoekin kritiko agertu da eta gauzak *beste modu batean* planteatu behar direla dio. *Beste modu horretatik* egin nahi izan du Aholku batzordeak bere irakurketa eta lehentasu-nak finkatzeko ahalegina.

Iurrebasoren tesiko ideia hauek izan ditu hizpide eta oinarri Aholku batzordeak:

- **Ezagutza ONDO, erabilera TXARTO.** Orain arte gailendu den mezua da. Baina hala da be-netan? Testuko aipamenak:
 - *Orain arteko sailkapenaren logikak esaten zuen indartsuago dagoela hizkuntza gaita-suna erabilera baino, eta beraz, gure ahulgunea erabilera eta indargunea gaitasuna dela. Hori esateko egiten zen kopuruen alderaketak ez du zentzu handiegirik. Toki eta hizkuntza guztietan da beti handiagoa ezagutza erabilera baino.*
 - **Gaitasun Erlatiboaren kontzeptua**
 - Bi hizkuntzak hartu behar dira kontuan: euskarazko gaitasuna eta gaztelaniazko (frantsesezko) gaitasuna. Gaitasunarena ez da aldagai dikotomikoa, graduazioa baizik. Hiztunen artean zenbat dira euskaraz erosoago egiten dutenak, eta zen-bat gaztelaraz erosoago egiten dutenak?
 - 16 urtetik gorako herritarren artean euskal gaitasuna nagusi dutenak %7 dira eta erdal gaitasuna nagusi dutenak %84.
 - Baina euskaraz hobeto moldatzen diren ia guztiek beste hizkuntza (gaztelania) ere badute. Eta erderaz errazago egiten duten hiztun gehienek ez dakit euska-raz. Desoreka ikaragarria da.
 - Hizkuntza gaitasuna gure ahulguneetako bat da. Erabilera, berriz, ezagutza eta gaitasuna kontuan izanik, espero zitekeena baino altuagoa da. “Dagoen hizkun-tza-gaitasunaren zorurako asko erabiltzen da gaur egun euskara”
 - Euskal hiztun benetan gaituak ekoiztea, lehen mailako helburutzat jarri behar da.
 - **Eskailera mekanikoaren metafora: *erdara*** nagusi den lurraldeetan euskaraz bizi nahi izatea goitik behera datorren eskailera mekanikotik kontrako norabidean igotzen saia-tzea bezalakoa da. Indar handia egin behar duzu, eskailerak berez kontrako norabi-dean dakarren abiadura berdintzeko. Arnasguneetan, ordea, eskailera behetik gora



doa, erraz egiten da gora, ahaleginik egin gabe ere. Horregatik, lehenetasun garbia izan behar da arnaguneetan bizi den jendea gero eta gehiago izatea, arnaguneak zabaltzea.

- **Etorkinek 2 eskailera mekaniko ikusi eta zein aukeratuko dute?** Zailtasunez igotzen ari garenona, ala erraz-erraz doazenena?
- Helburu linguistikoak lehenetasunetara ekarri behar dira.

Lehenengo bi bileretan egin ditugun gogoetak zailtasunak eta aukerak non ditugun identifikatzeko balio izan du. Hona hemen Eskoriatzako datuak ezagututa, maiatzean egindako galdetegiaren emaitzak aztertuta eta teorizazio berriak hizpide izanda, Aholku batzordeak osatutako **AMIA** (Aukerak, Mehatxuak, Indarguneak eta Ahulguneak).

INDARGUNEAK - Kooperatibak ditugu, euskara planetan aurretik ari direnak. - Euskaltzaleak egon badaude (komunitatea). - Hezkuntza sistema euskalduna. - Udalak euskararen aldeko jarrera du. - Gazteak herrigintzan euskaratik ari dira. - Herrigintza aktiboa. - Oinarri bat badago (erabilera, jakintza, euskaltzaleak...) . Ezagutza ona eta goraka. - Herri txikia izanik, sinergiak errazagoak dira. - Mobilizatzeko gaitasuna, euskararen aldeko sentimendu edo nahiak badauka masa kritikoa.	AUKERAK - Euskalgintza orokorraren eragina (Euskaraldia, Korrika...). - Erderarik ez dakiten atzerritarrek, 2.hizkuntza ikasteko beharra ikustea, eta euskara aukera moduan ikustea. - “Nola sentitzen naiz” moduko hausnarketak. Hizkuntzarekiko hausnarketak konpartitzeko saioak. Emozioak partekatzea. - Ditugun tresnak hobeto erabili: aldibereko itzulpena, dirulaguntzak, joko arau berriak, euskaltegia. - Etorkinekiko udalak egindako aukera politikoak, merkataritza/ostalaritza zerbitzuei laguntzak. - Finantziarioa (Jaurlaritza). - Sare sozial batzuk erabiltzaileen esku ere badaude, adibidez whatsapp-a
AHULGUNEAK - Sentsibiltate gutxi. - Legedia kontra. - Herritarren % handia gazteleraz erosoago sentitzen da (gaitasun erlatiboa). - Hirigintza: herria 3tan zatitua eta euskal eremua erdigunean oso fokalizatuta. Baserri mundua 4.gunea, baina ez dago batuta. - Zerbitzuetan euskararik ez dakien jendea dago, batez ere ostalaritza eta merkataritza oso erdaldunduta.	MEHATXUAK - Bikote mistoak. Erabilera txikia. Eta gero eta gehiago izango dira. - Elebitasun orekatua. - Etorkinen mugikortasuna (errotzeko zailtasuna). - Esparru “erdalduntzaile” indartsuak (EKE, lan-mundua, sare sozialak...). - Herrian sortzen diren talde berrietan, euskal erreferenteak (hiztunak) falta.



- Euskara elkarterik ez dago. - Erosotasunerako joera. Gatazkak ekiditearren, errazera jo (estres linguistikoa). - Integrazio/Harrera planik ez.	- Demografia. Etorkin jatorriko herritarrak gero eta gehiago izango dira. Etorkinek haur gehiago izaten dituzte. - Globalizazioa homogenizatzailea da, mundu ikuskerak partikularrak baztertu eta dena berdintzeko joera gailentzen ari da. Kulturen ere eragina du.
--	--

Bestelako gogoetak:

- **Etxeko hizkuntzaren** datua kezagarria da. Euskaraz dakiten bikoteek ere askotan gaztelaraz egiten dute etxean. Eta, noski, bikote mistoak. Gainera, aurrera begira sortuko diren bikoteak gero eta gehiago izango dira mistoak, beraz, hor eragin beharra dago. Etxeko hizkuntzak haurren "gaitasun erlatiboan" eragiten du, eta hurrek askotan horren arabera egiten duten lagunarteko hizkuntza-hautua. Arizmendin konprobatu dute guraso bileretan "itzulpengintzako belarritakoak" erabiltzen dituzten gurasoak oso gutxi direla (gela batzuetan ez du inork erabiltzen), guraso bilera gehienak ere euskaraz egiten dituztela, baina, berriz, ikasleen artean gaztelera geroz eta gehiago egiten dela (etxean hala egiten dutelako).
- **Etorkinen** integrazioa.
 - Udalak egiteko garrantzitsua dauka. Orain arteko asko tenporalak izan dira, pa-soan zeudenak. Orain, asko, bertan jaiotzen hasi dira. Geratzeko?
 - Utopia da kuadrilla berean Pakistan eta Marokoko jatorria duten haurrak eta familia euskaldunetakoak elkarrekin kuadrilla berean eta euskaraz aritzea.
 - Etorkinek beharra sentitu behar dute, batez ere guraso etorkinek euren seme-alabentzako behar moduan ikusi behar dute euskara. Erromantikotasunetik urrundu.
 - Lanketa egiteko 2 perfil bereizi behar dira: gaztelera hiztunak direnak eta gaztelera hiztunak ez direnak.
- **Lan-mundua:** euskal hiztunak bilatzea oso zaila da.
- **Euskaltzaleak ahalduntzea:**
 - **Elementu terapeutikoa:** Eskoriatzako euskaldunok behar ditugu halakoak, indartu egiten gara, sendotu... Ferixie, euskararen eguna, gaurkoa moduko bilerak... komunitate-sena eta indarraldia ematen digute.
 - **Joku-arauak euskararen alde jartzea.** Whatsapp taldeetako zailtasunak aipatu dira. Baina eragin daiteke, presionatu daiteke. Aldekotasuna-batzea beharrezkoa da (eta bitartekoak ipintzea)
- **Aisialdia:**
 - Hezkuntza ez formala: musika eskola. Ematen diren eskolen %62 euskaraz ematen da. Baina erakundearen funtzionamendua gaztelarazkoa da.
 - Eskoriatza Kirol Elkartea:
 - 70.hamarkadan, eskola publikoa gaztelera hutsezkoa zen. Bertan indar handia hartu zuen saskibaloiak. Futbolak ere indarra izan du Eskoriatzan,



baina beti gazteleratik. Orduan kirol elkarteak sortu zutenen oinordekoek jarraitzen dute orain ere, eta sorrerako hizkuntza-inertia ez da aldatu, nahiz eta entrenatzaile gehienak eskolan (behintzat) euskaldundu diren.

- Eskola kirolkide (2022) eta D eredu kirola ikerketa (2016-2018)
 - Kirol eremua oso eremu egokia da euskararen erabileran eragiteko. Zergatik?
 - Gustura egiten den jardura izaten da normalean, ludikoa eta ondo pasatzeko.
 - Taldean egiten da askotan.
 - Haurrentzako erreferentzia(k) d(ir)en heldua(k) = entrenatzailea
 - Gakoa entrenatzaileak euskaraz egitea eta klubak euskara plangintza izatea.
- **Kultura**, udalaren kultur agendan euskarazko eskaintza ugari izaten da eta euskarazko erreferentziak lekuak egin ohi zaie.
- **Hezkuntza**: ikastetxeetan egin den aldaketa metodologikoaren ondorioz, irakasleek presentzia gutxiago dute; digitalizazioa, autonomia, zirkulazio librea... horietan oinarrituta eraiki da metodologia berria eta horrek euskararen erabileran kontrara eragin du.
- **Gizartean, oro har**, euskara ez da prestigioarekin lotzen. Prestigioa, berez, sozialki onartua izatearekin lotuta dago, eta euskara, bereziki haur eta gaztetxoenen artean, ez da horrekin lotzen. Gainera sentsibilizazio falta handia dago, musikari askok, adibidez, berdin sortzen dute euskaraz, gazteleraz nahiz ingelesez...



Horiek horrela, Eskoriatzan euskararen normalizazioan aurrera-pausuak emateko indarra honako eremuetan jarri behar dela ondorioztatu du Aholku batzordeak: (ez-daude lehentasun hurrenkeran jasoak, esandako ordenan baizik)

- **ZERBITZUAK (ostalaritza, merkataritza)**
 - 10 pauso euskaraz moduko tresnak eskaini
 - Lehen hitza euskaraz egitearen garrantzia
 - Euskarriak (zenbakiak nola esan, errotulazio propioa,...)
 - Oinarrizko euskara ikastaroak
- **HAURREN eta NERABEEN AISIALDIA**
 - Eskoriatza Kirol Elkartean bereziki (indarra eta tamaina dituelako, ondo antolatuta dagoelako...)
 - Dirulaguntzen kudeaketa eta kontrola
 - Eskola kirolkide egitasmoan, posible da material espezifikoak egotea.
 - UDAk Eskola kirolkiden parte hartu du? Informazioa eskuratu daiteke?
- **EUSKARA ERAKARGARRI**
 - Euskaraz funtzionatzen duten guneak identifikatu, erakargarriak dira? Dibertimentu-arekin lotuak?
 - Daudenak indartu, mantendu
 - Berriak sortu.
 - Adibide moduan Baso Eskola aipatu da. Arizmendin egiten dute eta ikusi dute eremu horretan haurrek euskara gehiago egiten dutela. Natura inguruko hiztegia euskaraz ikasten dutela (zuhaitz edo txori izenak, tresnak...)
- **ETORKINEI BEGIRA**
 - Auzoko indartu
 - Berbalagunak egitasmoa etorkinei egokitua egin daiteke? (Familia lagunak)
 - Harrera plana egin
 - Euskaltegiak eskaintza berriak eta egokituak
 - Hizkuntza etorkinentzako errefortzuak
 - Ostalaritza/merkataritzan etorkin asko dagoenez, bi lan-eremuak uztartu.
- **GAITASUNA HOBETU BEHAR DA**
 - Ikastetxeekin lankidetzan jardun, beharrak elkarrekin aztertu, baliabideak elkarrekin diseinatu.
 - Hezkuntza sistema osoa euskaraz egin duten neska-mutil askok ez dute komunikagarritasunean nahikotasunik, baina ikastetxeek bakarrik ezin dute lortu. Sarea sortu behar da gaitasuna hobetzeko.
- **HERRI MUGIMENDUA INDARTU/SARETU**
 - Euskaraz funtzionatzen duten eragileei laguntza eskaini.
 - Arnasgune direnak lehenetsi.



- Arnasgune diren eremuetara beste eragile batzuk erakarri, adibidez txosnak. Euskarazko eremu izan ohi da txosnagunea, ba bertan bestelako ekintzak ere antolatu daitezke, beste eragile batzuk gonbidatu bertara...
- **SENTSIBILIZAZIOA – FAMILIAK**
 - Gurasoengan eragin
- **HERRI TXIKIA IZATEAK EMATEN DITUEN ABANTAILAK APROBETXATU**
 - Gutxi izanik, diagnostikoak egitea errazagoa da.
 - Diagnostikoa eginda, hobekuntza landu. Adibidez, txikitan koadrilen hizkuntza joerak azter daitezke, euskaraz funtzionatzen dutenak euskaraz funtzionatzen jarraitzeko baliabideak bilatu...
- **ESKORIATZAKO BALIOAK GORATU**
 - SINISTU. Ezkertasuna gailenduta dago herrian (ezin da ezer erosi, euskararik ez da egiten, ez dago ezer...)
 - Kanpaina positiboak egin

3.4 UDAL EGITURA eta BALIABIDEAK

UDAL EUSKARA ZERBITZUA 3 langilek osatzen dute:

- **Euskara teknikaria.** Lanjardun osoan, komunikazio arloko ekintzak ere bere gain ditu.
- **Hizkuntza normalizatzailea:** Leintz Udal Euskaltegiko langilea da, lan-jardun erdia egiten du Eskoriatzako Udalean, eta Erabilera Planaren arduraduna da.
- **Itzultzailea.** Lanjardun osoan.

Aholku Batzordeari informazioa emateko, Udal euskara zerbitzuak herriari begira egiten dituen jarduerak zerrendatu eta laburtu dira 2024ko maiatzean. Ekintza horien zerrenda txosten honen 1.Eranskinean ikus daiteke, eta bakoitzaren azalpen-txostena 2.Eranskinean.

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA Aretxabaletako Udalarekin batera mankomunatatutako erakundea da, helduen euskalduntzea eta alfabetatzea helburu duena. Jardun osoko 5 irakasle (1 udaletan lanean) eta jardun erdiko administrari-laguntzaile bat ditu plantillan. Bulego nagusiak Aretxabaletan ditu eta Eskoriatzan Euskal Txokoan 2 gela eta bulegoa. 2024an 2 talde ibili dira Eskoriatzan, beste guztiak Aretxabaletan.

AURREKONTUARI dagokionez, Eskoriatzako Udalak baliabide propioak jartzen ditu euskararen sustapenerako ekintzak eta egitasmoak aurrera ateratzeko, eta gainera dirulaguntza jasotzen du urtero honako laguntza-lerroetatik: Eusko Jaurlaritzatik Kulturarteko bizikidetza egitasmoetarako laguntza, eta Gipuzkoako Foru Aldunditik Aniztasunean bizikidetzarako eta Hizkuntza berdintasunerako.



3.5 EREMU ESTRATEGIKOAK FINKATZEA

Diagnostikoan jasotako datuak ezagututa, herritarrek betetako galdetegiko erantzunak aztertuta eta Aholku batzordeak esandakoak entzunda, udal euskara zerbitzuak honako lehentasun eremuak finkatu ditu 2024 – 2032 epealdirako:

1. EREMU ESTRATEGIKOA

Haur eta nerabeen aisialdia euskalduntzea.

2. EREMU ESTRATEGIKOA

Euskararik ez dakiten herritarrak euskarara hurbiltzea, bereziki etorri berriak.

3. EREMU ESTRATEGIKOA

Arlo sozioekonomikoan, merkataritzan eta ostalaritzan euskararen erabilera sustatzea.

4. EREMU ESTRATEGIKOA

Euskaldunak eta euskaltzaleak zaindu, ahaldundu eta komunitatea sendotzea.

5. EREMU ESTRATEGIKOA

Udal baliabideak behar berrietara egokitzea.



4

PLANA 2024 - 2032

NAHI ESTRATEGIKOA: Eskoriatzan euskara ohiko hizkuntza izatea. Horretarako, herritarren artean euskararen ezagutza eta erabilera areagotzea eta herritarrak nahiz eragileak euskaraz saretu eta aktibatzea.

MISIOA: Eskoriatza osatzen duten eragile publiko zein pribatuek euskararen normalizazioan norabide berean lan egiteko marko eta bide-orria eskaintzea, euskal hiztun osoak sortu eta ahalduztzeko, zein euskararen komunitatea sendotzeko. Hori guztia hizkuntza- eta kultura-aniztasuna aintzat hartuta eta gizarte eragileekin elkarlanean.

IKUSPEGIA:

2032. urtean honela egongo da Eskoriatza:

- Haur eta nerabe guztiek euskarazko aisialdia izango dute.
- Jaiotzen diren haurren erdiak atzeritar jatorrikoak izango dira, etxean euskararik ez dutenak, baina herrian familia-arnasguneak egongo dira euskararen prozesuan laguntzeko.
- Herriko hizkuntza-aniztasuna eta herritar berriak hobeto ezagutuko ditugu.
- Euskaratik urrun dauden helduek euskara ikasteko aukera zabala izango dute.
- Euskaraz bizitzeko aukera asko egongo dira; euskarak babesgune (arnasgune funtzionalak) gehiago izango ditu.
- Herri mailakoak diren eta balio ezberdinak jorratzen dituzten gainontzeko planekin elkarlanean arituko gara (berdintasuna, integrazioa, behar bereziak,...)
- Euskaraz gazteleraz baino hobeto moldatzen diren herritarrak orain baino gehiago izango dira; bereziki haur eta nerabeen kopuruak egingo du gora.
- Behar handiena duten herritarrei babesa, laguntza eta erraztasunak emango zaizkie, euskara euren ere badela senti dezaten.
- Euskararen aldeko eragileek norabide berean jardungo dugu lanean.



1. EREMU ESTRATEGIKOA

HAUR ETA NERABEEN AISIALDIA EUSKALDUNTZEA.

1.1. GAUR EGUNGO EGOERA

1.- Udalaren eskaintza

Udalak **ludoteka** eta **gazteleku** zerbitzuak eskaintzen ditu, gaur egun hurrenez hurren Txirikila elkarteak eta Txatxilipurdik kudeatuta. Euskararen normalizazioari dagokionez, ludotekaren egiteko nagusia euskarazko eremu funtzionala izatea da. Gaztelekuan, berriz, eremu funtzionala izateaz haratago, nerabeak euskaraz aktibatzeke helburu esplizitua ere badago.

Ludotekak astean zehar eskaintzen du zerbitzua, arratsalde. Erabili ahal izateko, urteko kuota ordaintzen dute bazkideek (urtean 35 euro). Uztailean, berriz, udalekuak antolatzen ditu, astelehenetik ostiralera goizetan, eta bertan parte-hartu ahal izateko ere kuota ordaintzen da (75 euro). Ludotekan, gainera, hizkuntza errefortzuak eskaintzen dira, eta bertan parte-hartzen dute adinari dagokion hizkuntza nahikotasunik ez duten haurrek. Haur horiek ikastetxeek identifikatzen dituzte. 2024-2025 ikasturtean 35 haur inguru ari dira errefortzu programan parte-hartzen. Ludotekako erabiltzaileen gehiengoa dira. Ludotekak, gainera, Udaberriko eskaintza egiten du Aste Santuko oporretan, 10:00-13:00 orduetara

Familia tailerrak ere antolatzen ditu Udalak, urtean 4 bat saio, asteburuetan. Egun bakarreko 2 orduko saioak. Harrera ona izaten dute eta euskaraz egiten den eremuak izaten dira.

Gaztelekuak asteburuetan eskaintzen du zerbitzua eta doan da.

Kulturgintzan udalak haurrentzako ipuin kontaketak, zine emanaldiak, antzerkiak... antolatzen ditu, denak euskaraz.

Kirol arloan Manuel Muñoz kiroldegian igeriketa ikastaroak eskaintzen dira haurrentzat. Gaur egun Athlonek eskaintzen du zerbitzua, eta udalak ezarritako



irizpideen arabera, euskara hutsean ematen dira saioak.

2.- Udalaz kanpoko eskaintza

Aisialdi eremu handia **kirolak** hartzen du eta hau da gaur egungo eskaintza:

Eskoriatza Kirol Elkartea (EKE)	• >50 parte-hartzaile. • Ibilbide luzea. • Udalaren dirulaguntza jasotzen du. • Udalaren eraikinak erabiltzen ditu.	Haurrekin eta nerabeekin euskaraz funtzionatzeko zailtasunak.
Leintz Eskola Kirola (LEK)	• >50 parte-hartzaile. • Ibilbide luzea. • GFaren dirulaguntza eta Udalarena jasotzen du. • Udalaren eraikinak erabiltzen ditu.	Euskaraz
Arizmendi kirol elkartea	• >50 parte-hartzaile. • Ibilbide ertaina. • GFaren dirulaguntza eta Udalarena jasotzen du. • Udalaren eraikinak erabiltzen ditu (pilota)	Euskaraz
Atama Kenpo taldea	• >50 parte-hartzaile. (Guztira 60 bat. 13 urtetik beherakoak, 40 bat.) • Ibilbide luzea. • Udalaren dirulaguntza jasotzen du. • Udalaren eraikinak erabiltzen ditu.	Haurrekin eta nerabeekin euskaraz funtzionatzeko zailtasunak.
Gimnasia erritmikoa	• <50 parte-hartzaile. • Ibilbide luzea. Indarra galtzen. • Udalaren eraikinak erabiltzen ditu.	Haurrekin eta nerabeekin euskaraz funtzionatzeko zailtasunak.
Oihal akrobaziak	• <50 parte-hartzaile. • Ibilbide laburra, indarra hartzen. • Udalaren eraikinak erabiltzen ditu.	Euskaraz
Aikido	• <50 parte-hartzaile.	Haurrekin eta nerabeekin



	• Eskoriatzan ibilbiderik ez, 2024an hasi da. • Udalaren eraikinak erabiltzen ditu.	euskaraz funtzionatzeko zailtasunak.
Arku Tiraketa	• <50 parte-hartzaile. • Ibilbide laburra, indarra hartzen. • Udalaren dirulaguntza jasotzen du eta eraikinak erabiltzen ditu.	Haurrekin eta nerabeekin euskaraz funtzionatzeko zailtasunak.

EKE-k, Arizmendi K.E.-k, Atama Kenpok eta Arku tiraketak hitzarmena sinatzen dute urtero udalarekin. EKE-k azken 10 urteetan udalarekin sinatu duen hitzarmenean, euskara normalizatzeko diru-ekarpen espezifikoa izan du. Arizmendi eta Kenpo elkarteek hitzarmenetan betebeharrak espezifikoak zehazten dira, baina ez dago diru kopuru zehatzik horiei baldintzatuta.

Musika eskola haur eta nerabeen aisialdi eremuan kokatu dugu, baina hezkuntza ez formalean ere koka dezakegu. Ematen diren klase guztietatik %61 euskaraz dira eta %13 ele bitan. Irakasleen artean 9 dira euskal hiztunak eta 3 euskararik egiten ez dutenak. Ikasleen artean, berriz, %97 euskaldunak dira.

Musika eskolak Udalaren dirulaguntza jasotzen du, eta laguntza hori arautzen duen hitzarmenean, hizkuntza baldintzak ezartzen dira. Horren ondorioz, badira 8 bat urte hizkuntza baldintzen betekizun mailaren jarraipena egiten zaiola musika eskolari.

Dantza taldea. Musika eskolak euskal dantzak ematen ditu, eta bertan 40 bat haur eta nerabe ari dira. 2024.urtean Gorosarri dantza taldea sortu da eta haur eta nerabe horiek dantza-eskolak jasotzeaz gainera, dantzak plazaratu eta dantza taldeen dinamikan txertatzea da asmoa. Udalak diruz lagunduko du Gorosarri dantza taldearen dinamika.

Akademiak. Eskolaz kanpo klaseak ematen dituzten 3 akademia daude, bi ingeles-akademia eta eskolako lanetan laguntzeko beste akademia bat. Akademiak eremu pribatu izanik, horien informaziorik ez dugu, ezta inolako elkarlanik ere.

Buztinate elkarteak zeramika ikastaroak ematen ditu, baita haurrentzat eta



gaztetxoentzat ere. Udal eraikina erabiltzen du eta 2024an lagapen hori arautzen duen hitzarmena sinatu da. Ikastaroa ematen duena erdal hiztuna da, euskara ulertzen duen arren.

Zalditegia dago Lete auzoan. Jarduera pribatua izanik, ez dugu informaziorik ezta inolako elkarlanik ere. Udan udalekuan ere antolatzen ei dira bertan.

Haizeberri aisialdi elkarteak sortu berria da 2024.urtean. Aniztasun funtzionala duten haur eta gaztetxoei bideratutako aisialdi elkarteak da. 2024 urte bukaeran 2 ekintza egin dituzte Eskoriatzan eta bertako erabiltzaileak ere badituzte. Sortu berria denez, ez dugu informazio gehiago, baina udaleko gazteria eta gizarte zerbitzuak harremanetan daude



1.2. ALDERDI POSITIBOAK eta NEGATIBOAK

Alderdi positiboak	Alderdi negatiboak
• Udalak antolatzen dituen haurrentzako eta nerabeentzako aisialdi jarduerak euskaraz dira. • Euskarazko eremu funtzionalak badaude: ludoteka, gaztelekua, LEK, Arizmendi kirol elkarte, EKEko saskibaloia, oihak akrobaziak eta euskal dantzak. Bertan, etxean euskararik jaso ez duten haurrek eta nerabeek eskolaz kanpo euskara normaltasunez erabili dezakete. • Udalekuak baliabide egokia dira etxean euskararik ez duten haurrek eskola-gabeko sasoian euskara erabiltzeko. • Udalaren lokalak erabili edo dirulaguntzak jasotzen dituzten haurrentzako eta nerabeentzako aisialdi eskaintzan, hizkuntza irizpideak txertatzeko bide bat egina dago (adib. Musika eskolan) • Legediak alde jotzen du. Udal Legeak eta baita 2/2022 Gazteriaren Legea (5, 7 eta 20. artikulua) eta 2/2024 Haur eta Nerabeen Legeak (3d.artikulua) ere. • Aisialdi jardueretan dauden eta euskararik ez dakiten langileak 55 urtetik gorakoak dira, beraz, epe ertainean aldaketa-generazionala egongo da. • Haur askok liburutegian pasatzen dute aisialdi libre, eta liburutegia udal eremua denez, bertan eragitea posible da. • Kulturgintzatik haur eta nerabeentzako egiten den eskaintza osoa euskaraz da.	• Indar handia duten aisialdi eskaintza hauetan ez da euskaraz funtzionatzen: EKE, Kenpo, Gimnasia erritmikoa. • Euskarazkoak ez diren eskaintza berriak sortzen dira eta udal eraikinak erabiltzen dituzte (adibidez Aikido). • Ludotekan euskara ohiko hizkuntza duten erabiltzaileak gutxi dira. • Aisialdia ordainpekoa da. Arrakala ekonomikoa haurren aisialdian eragiten duen faktore garrantzitsua da. Baldintza ekonomiko txarrak immigrazioarekin, eta ondorioz, etxean euskararik-ezarekin erlazioa du. • Aisialdia udal liburutegian pasatzen duten haur eta nerabeak asko dira (bereziki ordenadoreetan ibiltzen dira), baina ez dugu plangintza espezifikorik haiengan eragiteko. • Umbrela lizentziarekin zine emanaldietarako euskarazko pelikulen eskaintza oso mugatua da.



1.3. PLANGINTZA

1. EREMU ESTRATEGIKOA	
HAUR ETA NERABEEN AISIALDIA	
Helburua	
0 – 16 urte bitarteko haur eta nerabeentzako aisialdi eskaintza osoa euskaraz izatea.	
Egitekoak	
Udal zerbitzuak:	
○ Euskararen errefortzua eskaintzeko sistema berraztertu, HH, LH nahiz DBHkoa. Errefortzuak optimizatu. ○ Baliabide ekonomiko urria duten familietako haurrek aisialdia euskaraz jasotzeko bideak sortu. ○ Udalak eskaintzen dituen haurren eta nerabeen aisialdi zerbitzuen argazki eguneratua osatu. Argazki horretan, hizkuntza trataeraren informazio zehatza jaso. ○ Ludoteka zerbitzuko erabiltzaileen hizkuntza ohituren datuak jaso eta dagokion plangintza egin. Helburua izango da euskaraz ez dakitenekin: ▪ Partaideen artean euskaraz egitea hezitzaileek beraiekin elkarriketatan ari direnean. ▪ Partaideen artean euskaraz egitea beraien kabuz ari direnean jarduera babestu edo antolatuetan. ○ Euskaraz dakitenekin: ▪ Euskaraz egiteko ohiturarik ez dutenekin biltzean euskara mantentzea jarduera babestu edo antolatuetan. ▪ Euskaraz egiteko ohiturarik ez dutenekin biltzean euskara mantentzea edozein egoera eta tarteetan. ○ Gaztelekuko erabiltzaileen hizkuntza ohituren datuak jaso eta plangintza egin: ○ Euskaraz aritzeko ohitura EZ dutenen kasuan: • Partaideen artean euskaraz egitea hezitzailea tartean denean. • Partaideen artean euskaraz egitea beraien kabuz ari direnean jarduera babestu edo antolatuetan. ○ Beraien artean euskaraz aritzeko ohitura dutenen kasuan: • Partaideen artean euskaraz egitea beraien kabuz ari direnean edozein egoera eta tarteetan. • Euskaraz egiteko ohiturarik ez dutenekin biltzean euskara mantentzea jarduera babestu edo antolatuetan.	



- Euskaraz egiteko ohiturarik ez dutenekin biltzean euskara mantentzea edozein egoera eta tarteetan.

- Ludoteka eta Gaztelekua zerbitzuek herri mailako jarduera babestu eta antolatuak eskaintzea euskarazko aisia-aukerak areagotzeko.
- Gazteen artean ahozkoitasuna lantzeko aukerak eskaini (Hikaren lanketa)
- Ahozko erabileran euskalkia erabili.
- Aisialdiko udal zerbitzuetan, gurasoekin harremanetan jartzeko hizkuntza irizpideak definitu (hitzaldietan interpretaritza eskaini; komunikaziorako dibulgazio taldeen hizkuntza ohitura...)
- Haurrentzako zine emanaldiak euskaraz izateko baliabide ekonomikoak ipini.
- Familiak euskara gerturatzeko eta familien hizkuntza ohituretan eragiteko jarduerak antolatu.

Udaletik kanpokoak:

- Udal eraikinetan gauzatzen diren edo/eta udalaren dirulaguntza jasotzen duten haurrentzako eta nerabeentzako aisialdiko zerbitzuen argazki eguneratua osatu. Argazki horretan, hizkuntza trataeraren informazio zehatza jaso.
- Udal eraikinetan gauzatzen diren edo/eta udalaren dirulaguntza jasotzen duten 0-16 urte bitarteko haur eta nerabeentzako aisialdi zerbitzuek eskaintza euskara hutsean izateko irizpideak onartu.
- Euskaraz funtzionatuko duten haur eta nerabeentzako aisialdi eskaintza berriei lehentasuna, erraztasunak eta diru-baliabideak eskaini.

Beste esperientzia batzuk ezagutzea: gertukoak adibidez UDA taldeak daukan plana; “Eskola kirolkide” materiala.

Aisialdiko lan-mahaia sortu edo eratuko den hezkuntza-mahaiarekin uztartzea baloratu.



2. EREMU ESTRATEGIKOA

EUSKARARIK EZ DAKITEN HERRITARRAK EUSKARARA HURBILTZEA, BEREZIKI ETORRI BERRIAK

2.1. GAUR EGUNGO EGOERA

Plan hau egikaritu aurretik egindako diagnostikoaren datuetan jasotakoaren arabera **atzerrian jaiotako herritarrak** duela 20 urte %1,25 ziren eta duela 10 urte %5. 2025.urtean, %10 dira.

Jatorriari dagokionez, azken urteetan batez ere Hego Ameriketatik etorritakoen taldeak egin du gora. 2025ean gehiengoa kolonbiarra da eta jarraian datoz pakistandarrek eta marokoarrak.

Adin txikiko etorkinen kopuruak azken 20 urteetan izan duen gorakada oso kontuan hartzekoa da. 2000.urtean ia ez zegoen jatorri atzeritarreko haurrik. 2024an, berriz, jaiotako 19 haurretatik 9k (%47) **bi gurasoak** atzeritar jatorrikoa dituzte eta 4k (%21) **gurasoetako bat** dute atzeritar jatorrikoa.

Eskoriatzako **ikastetxeetan matrikulatutako** Jatorri Atzeritarreko Familietako Ikasle (JAFI) gehienak eskola publikoan matrikulatuta daude. Eskola publikoak, beraz, etxeko hizkuntza euskara ez duten ikasle portzentaje oso altua du, bereziki HHko geletan, zenbait kasutan %60-80 bitartekoa dena.

Jatorri Atzeritarreko Familiek, oro har, ez dute herriko dinamiketan parte-hartzen, ezta eskola-komunitateetan ere.

Etorkinak izan barik ere, **euskararik ez dakiten herritar helduak** asko dira Eskoriatzan, eta herri euskaldunetan ez bezala, Eskoriatzan euskararik gabeko bizimodua egin ahal izatea nahiko normala da.

Auzoko egitasmoak 10 urteko ibilbidea dauka herrian. Euskara ardatz izanik harrera-linguistikoa egiten du eta herritar desberdinen arteko harremanak sortuz, elkarbizitza egitasmo izateko helburuz jarri zen martxan.



2024-2025 ikasturtean Huhezirekin “**Kulturartekotasuna eta Euskara**” egitasmoa abiatu da, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak finantzatuta. Proiektu hori orain arte, euskaldun proportzio altua duten herrietan gauzatu da. Eskoriatzan euskaldun proportzioa %60ra justu iristen denez, bertan aplikatu eta frogatu nahi da helburuak ondo betetzen ote diren.

2.2. ALDERDI POSITIBOAK eta NEGATIBOAK

Alderdi positiboak	Alderdi negatiboak
• Immigrazioaren bilakaera ezagutzeko azken 20 urteetako datuak baditugu. • Huhezirekin hasitako lan-egitasmoak formazioa du oinarri, eta eragile askok parte-hartzen dute. Baliabide eta praktika-onen katalogoa badago. • HH eta LHn azken 15 urteetan hizkuntza errefortzuak eskaintzen ditugu. • DBHn hizkuntza errefortzuak azken 20 urteetan eskaintzen ditugu. • Auzoko egitasmoa 10 urtez martxan daukagu. • Udal euskara zerbitzuak estrategikotzat jo izan du immigrazioaren gaia, eta informazioa jaso eta egitasmoak martxan jarri izan ditu.	• Ez dago harrera planik, harrera egiteko eredu sistematizaturik... Ez dago immigrazio egitasmo egituraturik, ezta lidergotzarik ere. Bakoitzak bere eremutik ahal duena egiten du. • Etorkin askok oinarritzko beharrak ase barik dituzte. • JAFI ikasleen egonkortasuna aurreikusi ezina da. • JAFI ikasleen artean gero eta gehiago dira gaztelera hizkuntza badakartenak, eta horrek euskararen aldeko hautua zaildu egiten du. • Eskola publikoan euskararik ez dakiten ikasleen kopurua euskaraz egiten dutenena baino altuagoa da gela askotan. • Ikastetxeek ez dute baliabide pertsonal nahikorik ezta baliabide pedagogiko egokirik euskara barik etortzen diren ikasle berriei modu sistematizatu egokian erantzuteko.



2.3. PLANGINTZA

2. EREMU ESTRATEGIKOA	
EUSKARARIK EZ DAKITEN HERRITARRAK EUSKARARA HURBILTZEA, BEREZIKI ETORRI BERRIAK	
Helburua	• Eskola prozesu (ia) osoa euskaraz egiten duten familia atzerritarreko ikasleek eskola prozesua bukatzea, eta euskarari dagokion B2 maila eskuratzea gutxienez. • Eskoriatzan bizitzeko, euskara balio erantsi gisa ikustea. • Identitate-pluralei lekua egitea. • Jatorri atzerritarreko gurasoek euskararekiko motibazio positiboak izatea. • Jatorri atzerritarreko haur eta nerabeek euskarazko aisialdian parte-hartzea.
Egitekoak	○ Kanpotik etorritako herritarren egoera ezagutzeko diagnosi txiki bat egin. Ze zailtasun dituzte, nola ikusten dute euskara ikastea... Auzokon daudenekin egin daiteke. ○ Kulturartekotasuna eta Euskara egitasmoa martxan mantendu, lan-ildoak sistematizatu arte. Egitasmo honetan parte-hartuko duten eragileen eskariei erantzuteko baliabideak eskaini. ○ Haurrek eta nerabeek aisialdian euskaraz egin ahal izateko, baliabideak sistematizatu (errefortzuen sistema berraztertu). ○ Familian egiteko ekintzak antolatu eta sustatu. ○ Familia lagunak moduko egitasmoak martxan jarri, aisialdi eskaintzaz haratago, herriko familien arteko elkar-laguntza oinarri izanik. ○ Bereko hizkuntza gaztelera duten familia etorri-berriekin lanketa berezia egin, hizkuntza nagusia jakinik euskara bereganatzeko zailtasun handiagoak dituztelako. ○ Atsolorra egitasmoan hizkuntza- eta kultura-aniztasuna aintzat hartu, presente egin eta familia tipologia desberdinen arteko harremanak sustatzeko baliatu. ○ Udalak antolatutako bilera eta hitzaldietan (lehentasunez gurasoei zuzendutakoak) aldibereko itzulpen sistema inplementatu. ○ Etxeko hizkuntza(k) balioan jarri; norberarena mantentzeak duen garrantzia. ○ Eskoriatzako aniztasun-kulturala eta hizkuntza-aniztasunaren informazioa zabaltzeko. ○ Auzoko egitasmoa eta udal euskaltegiko eskaintzari buruzko hausnarketa



konpartitua egin, helburuak bateratu eta baliabideak optimizatu.

- Ostalaritza eta merkataritzan diharduten etorkinekin lanketa, 3.eremu estrategikoa aintzat hartuta.
- Euskaltegian eskaintza berriak eta espezifikoak egin. (laburrak hasieran, doan, arraigoa lortzeko eta amu gisa...)
- Euskaltegiko hobari eta doakotasun neurrien informazioa azaltzeko modua erraztu.
- Euskara ikasten ari direnei, edo Auzokon parte-hartzen dutenei hobariak emateko bideak aztertu. Beste esperientzia batzuk ezagutu.
- Bergarako Harrera Plana, ongi-etorri ekitaldiak eta Enbaxadore figurak ezagutu eta aztertu.



3. EREMU ESTRATEGIKOA

ARLO SOZIOEKONOMIKOAN, MERKATARITZAN eta OSTALARITZAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA

3.1. GAUR EGUNGO EGOERA

Lan-mundua

Eskoriatzako Udalak 2024.urtean hasi du Debagoieneko Mankomunitatearen bitartez lan munduan euskararen erabilera sustatzeko egitasmoa. Egitasmoa Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutakoa da, Bergarako Udalak egindako HARIXA proiektua oinarri hartuta.

Merkataritza eta Ostalaritza

Eusko Jaurlaritzak sortutako Euskaraz Barra Barra (e//) ziurtagiria martxan jartzeko bidea egin da 2024.urtean eta 18 establezimenduk eman dute izena, horietarik 10 Axtroki merkatarik elkartekoak.

Horrez gain, e// ITZUL izeneko marka sortu nahi izan dugu e// egitasmoan izena emateko baldintzak betetzen ez dituzten establezimenduei errotuluak, kartela, oharrak... euskaratzeko. Baina 2024an ez dugu behar bezala gauzatzerik lortu eta e// egitasmoari eman zaio lehentasuna.

3.2. ALDERDI POSITIBOAK eta NEGATIBOAK

Alderdi positiboak	Alderdi negatiboak
- HARIXA egitasmoa martxan dago, bailara mailako egitasmoa da eta Mankomunitateak baliabideak ipiniko ditu. - e// egitasmoa martxan dago. - e// Udal Garapen zerbitzuarekin elkarlanean gauzatzen da.	HARIXA egitasmoa bailara mailakoa izateak, baditu zailtasun batzuk. Kudeaketa mailakoak gehienak. Eta, baita, herriek orain arte eremu honetan egin duten lanaren arabera ere. Eskoriatzan orain arte ez dugu eremu honetan inolako lanketarik egin.



• e// egitasmoan, establezimenduen erantzuna gehienetan ona izan da. • Axtroki Merkatarik Elkartean dauden establezimendu guztiekin modu bateratuan egiten da lana. • Udalak establezimendu berriak zabaltzeko edo eskualdatzeko dirulaguntzetan hizkuntza irizpideak ezarrita ditu. • Udalak terrazen ordenantzan hizkuntza irizpideak ezarrita ditu. • Udalak itzulpen eta zuzenketa zerbitzua eskaintzen du.	• e// egitasmoan, establezimendu gehien erantzuna ona izan da, baina ohituta daude “aldekotasuna” adierazten eta ez horrenbeste ekintzak egiten (adibidez, gaztelaraz dauden testuak euskarara itzultzen) • Enpresa, denda, taberna eta zerbitzu gehienak oso txikiak dira. • Merkatarik/ostalarik beharrak eta udalaren helburuak bateratzeko zailtasunak. Jarraikortasunez lan egiteko zailtasunak. • Merkataritza eta ostalaritzan euskararik ez dakiten langileak asko dira. • e// ziurtagiria eskuratzeko baldintzak betetzen ez dituztenekin lan egiteko proiektu falta. • Denda eta taberna gehienetan kartelak, oharrak... gaztelara hutsean daude, eta normalizat ikusten dute bai establezimenduetako jabeek eta baita bezeroek ere. • Udalaren itzulpen zerbitzua ia ez da erabiltzen. • Ostalaritzan euskarazko musika gutxi entzuten da. Euskarazko prentsa taberna bakar baten dago.
---	--



3.3. PLANGINTZA

3. EREMU ESTRATEGIKOA	
ARLO SOZIOEKONOMIKOAN, MERKATARITZAN eta OSTALARITZAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA	
Helburua	• Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzugintzan jendaurreko kartelak, oharrak, menuak... gutxienez euskaraz egotea. • Lan-munduan Harixa egitasmoa gorpuztea.
Egitekoak	• Udal euskara eta garapen zerbitzuek elkarlanean jardutea. Merkataritza eta ostalaritza: • e// egitasmoa: ○ Egitasmoa sistematizatu. Izena eman duten establezimenduekin lan jarraitua eta positiboa egitea. ○ Egitasmoa herritarrei ezagutzera eman, bezeroak euskararen erabileran aktibatzeke. ○ Egitasmoari establezimendu gehiago batu. • e// egitasmoan parte-hartzeko baldintzak betetzen ez dituzten establezimenduekin lanketa egiteko egitasmoa diseinatu, planifikatu eta gauzatu (gutxienez jendaurreko kartelak, oharrak, menuak... euskaraz ere izatea). • Material espezifikoa atera: hiztegiak (zenbakiak, nola esan...); “10 pausu euskaraz”; • Oinarrizko euskara ikastaroak eskaini. • Bezeroengan eragin, euskaraz eska eta eros dezaten. Lan mundua: Harixa egitasmoa: • Mankomunitatearekin elkarlanean jarraitu. • Mankomunitateak izendatutako aholkularitzarekin elkarlanean aritu.



4. EREMU ESTRATEGIKOA

EUSKALDUNAK ETA EUSKALTZAILEAK ZAINDU, AHALDUNDU ETA KOMUNITATEA SENDOTZEA

4.1. GAUR EGUNGO EGOERA

Gehienetan, euskaldunak aktibatzeke lidergotza udalak izan ohi du. Badaude herritarrek interesa dutenak eta aktiboki parte-hartzen dutenak hitzordu puntualetan (Korrika, Euskararen eguna, Euskaraldia...), baina disgregatua daude.

Gazte mugimenduan modu antolatuan ari direnak, euskaraz eta euskaratik ari dira, nahiz eta euren helburu esplizitua ez den euskararen normalkuntza.

4.2. ALDERDI POSITIBOAK eta NEGATIBOAK

Alderdi positiboak	Alderdi negatiboak
• Ekintza puntualetan komunitatea batu ohi da. • Gazte elkarteak euskaraz eta euskaratik mugitzen da. • Arnasgune funtzionalak egon badaude. • Motibazioa eta interesa duten herritarrek egon badaude. • Antolatu barik egon arren eta gaitasun erlatibo txikia izan arren, euskararen kale erabilera mantendu egin da azken 20 urteotan.	• Euskaltzaleen talde egituraturik ez dago. • Aktibotasuna instituzionalizatuta dago. • Teorizazio eta lanketan, mugak. • Arnasgune funtzionalak zein diren identifikatu barik daukagu. Beraz, zeintzuk diren ez dakigunez, ezin dugu jakin instituzionalak diren, dibertigarriak, ondo funtzionatzen duten... • 3 Eskoriatza ditugu: erdialdea (plaza ingurua), kanpoko auzoak (goiko kale, Intxaurtxueta...) eta elizateak (sakabanatuta)



4.3. PLANGINTZA

4. EREMU ESTRATEGIKOA	
EUSKALDUNAK ETA EUSKALTZALEAK ZAINDU, AHALDUNDU ETA KOMUNITATEA SENDOTZEA	
Helburuak	• Euskaltzaleak ahalduntzea. • Euskaltzaleen komunitatea gorpuztea. • Euskara balio positiboekin lotzea.
Egitekoak	○ Elementu-terapeutikoak antolatzen eta babesten jarraitu: Korrika, Ferixie, euskararen eguna... Ekitaldi hauek aprobetxatu mezuak zabaltzeko (lehen hitza beti euskaraz...) ○ Euskaraldia antolatu eta babestu. ○ Herriko arnagune funtzionalak identifikatu, eta izaerari erreparatu: atseginak dira ala zurrinak; zein erabiltzaileri lotuta daude... Hutsuneak ere identifikatu. Daudenak babesteko estrategiak definitu eta berriak sortzeko aukerak aztertu. (adibidez, xake eskola, joskintza) ○ Euskaraz eta euskaratik funtzionatzen duten taldeak babestu. ○ Arnagune funtzionaletara, beste eragile batzuk erakarri. ○ Lidergoa erakundetik herritarrengana eskualdatu. ○ Aliatuak identifikatu eta elkarlan bideak adostu. ○ Formaziorako eta ahalduntzeko balioko duten ekintzak (hitzaldi-sorta txikia) urtero sistematizatu (Euskaraz Bagara edo ...) ○ Euskarazko sortzaileak babestu eta indartu, bereziki herrikoak, baina baita bailarakoak nahiz Euskal Herrikoak ere. (Literatura solasaldiak, #ZeDemontre lehiaketa, antzerki emanaldiak, dokumentalak...) ○ Bailarako euskarazko komunikabidea den Goiena babesten jarraitu. ○ Guraso gazteak lehenetsi, etxeko hizkuntzaren transmisioan eta hizkuntza-ohitura egokien transmisioan duten garrantziagatik. ○ Euskara erabiltzeko kanpainak egin (Errenta Aitorpena, Apellidoak abizendu, Gida Baimena euskaraz...) ○ Euskalkia babestu, indartu eta plazaratu (Ahotsak, AppaHi, Toponimia...)



5. EREMU ESTRATEGIKOA

UDAL BALIABIDEAK BEHAR BERRIETARA EGOKITZEA

5.1. GAUR EGUNGO EGOERA

Udal euskara zerbitzuak 3 langile ditu: euskara teknikaria, itzultzailea eta hizkuntza normalizatzailea. Azken hori, izatez, Leintz Udal Euskaltegiako langilea da, lan-jardun erdia Eskoriatzako Udalean eta beste erdia Aretxabaleta Udalean egiten du, 2 erakundeen Erabilera Planak gauzatzen. Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko VII. Plangintzaldia 2023-2027 epealdirako onartuko du Eskoriatzako Udalak honako plan honekin batera. Bertan jaso eta arautzen dira Eskoriatzako Udalaren egitekoak, erakundearen barruko euskararen normalkuntzarako bidean.

Plan hau 2032.urtera artekoa da, eta bide horretan gaur egun euskara zerbitzuan lanean diharduten 2 langile jubilatzeari aurreikusten da. Hizkuntza normalizatzailea 2027an eta itzultzailea 2032an. Hori horrela, plan hau bukatu aurretik udal euskara zerbitzua berrantolatu egin beharko da.

Leintz Udal Euskaltegia Aretxabaletako eta Eskoriatzako Udalen artean mankomunatatutako erakunde publikoa da, HABErena, 16 urtetik gorako herritarren euskalduntzea eta alfabetatzea helburu duena.

HABEk finkatutako matrikula-prezioak kobratu eta eskola-orduak eskaintzen dira. Ohiko taldeak dira gehienak, astean 4 egunetan 2 orduko modulazioan eta urtean 450 euro inguruko matrikula izaten dute. Matrikulak ordaintzeko, hobari sistema badauka euskaltegiak, langabetuak, familia ugariak... aintzat hartzen dituenak.

Euskaltegiaren bulego nagusia Aretxabaletan dago eta Eskoriatzan Intxaurtxueta auzoan eskolak emateko 2 gela daude Euskal Txokoan.

Euskaltegiako langile plantillak honako lanpostuak ditu: zuzendari 1 lan-jardun erdian



klaseak ematen dituen; lan-jardun osoko 3 irakasle euskara klaseak ematen; lan-jardun osoko irakasle 1 udal euskara zerbitzuetan lanetan eta lan-jardun erdiko administrari-laguntzailea. Horiez gain, azken hiru ikasturteetan beste lan-jardun oso bat kontratu izan da klaseak emateko eta azkeneko ikasturtean lan-jardun 1 ½ . Plantillako 5 irakasleak eta administraria 4 bat urteko epean jubilatuko dira.

Ikasleei dagokienez, hauek dira azken urteetako datuak:

	LEINTZ UDAL EUSKALTEGIKO IKASLEAK						
	Aretxabaleta		Eskoriatza		Beste herri batzuk		GUZ-TIRA
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%	
2000-2001	62	53%	56	47%			118
2010-2011	50	65%	27	35%			77
2015-2016	41	64%	23	36%			64
2019-2020	48	62%	25	32%	5	6%	78
2020-2021	41	58%	21	30%	9	13%	71
2022-2023	55	45%	17	14%	49	40%	121
2023-2024	62	51%	18	15%	41	34%	121

*Datu hauek 16 urtetik gorako ikasleenak dira

2024-2025 ikasturtean 16 urtetik gorako ikasleak 179 dira. Baina horiei hizkuntza errefortzu programetan ari diren 16 urtetik beherako beste 50 ikasle gehitu behar zaizkie.

16 urtetik gorako 179 ikasleen artean 52 C1 mailakoak dira; beste 51 A0 mailakoak dira eta 68 autoikaskuntzakoak (mailari buruzko daturik ez daukagu).

5.2. ALDERDI POSITIBOAK eta NEGATIBOAK

Alderdi positiboak	Alderdi negatiboak
Udal euskara zerbitzua - Egitura trinkoa du eta udalaren funtzionamenduan zerbitzu sendoa da. - Esperientzia handiko lan-taldea dago. - Udalak duen jubilarzio-planean euskara zerbitzua ere aztergai da.	Udal euskara zerbitzua - Jubilazioen ondorioz, berregituratu beharra. Indarra galtzeko arriskua. Leintz Udal Euskaltegia - Jubilazioen ondorioz, plantillan epe laburrean aldaketa handiak gertatuko



Leintz Udal Euskaltegia • Esperientzia handiko lan-taldea dago. • Doakotasuna ez da erreala, baina hobari sistema ondo landua dauka. • Udalak euskara ikasleentzako dirulaguntza lerroa dauka. • Udal euskaltegiko plantilako langile 1 udaletan ari da lanean Erabilera Planarekin, baina haren jubilazioarekin lanpostu hori euskaltegiko zereginetara bideratu daiteke. • Berezkoa zen lan-ildotik irten eta 16 urtetik beherako ikasleei eskolak emateko malgutasuna izan du azken urteetan. • Esparru berrietara egokitzeko gaitasuna: jubilatuak, unibertsitateko ikasleak...	dira, denak batera samar. • Eskoriatzan ia ez du presentziarik. Ez da euskararen erreferentzia. • Eskoriatzako ikasleen proportzioak nabarmen egin du behera. • Herritarren euskalduntze-alfabetatze taldeak baino, erakunde, enpresa... taldeak daude (Huhezi, Assembly...) • Udal euskaltegian 16 urtetik beherako ikasleak ere badaude, udalen errefortzu programei erantzuteko, eta talde horiek ohiko taldeentzako lekua hartzen dute. • AUZOKO egitasmoan parte-hartzen duten herritarrek, gero ez dute euskaltegira jotzen. • Udal euskara zerbitzuek eta euskaltegiak ekintza puntualetan lankidetzan jarduten dute, baina ez dago estrategia bateraturik.
--	--



5.3. PLANGINTZA

5. EREMU ESTRATEGIKOA	
UDAL BALIABIDEAK BEHAR BERRIETARA EGOKITZEA	
Helburuak	
• Toki Erakundeek Legeak 7.artikuluari arautzen duena betez, Eskoriatzako Udalak euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena egikaritzea. • Eskoriatzan udal euskaltegiaren presentzia areagotzea eta Eskoriatzako ikasle kopurua gehitzea. • Euskararen ikaskuntzan doakotasunaren bidean lan egitea.	
Egitekoak	
Udal euskara zerbitzua ○ Jubilazioen ondorioz egongo diren aldaketak ondo planifikatu, funtzioetan eta egitekoetan galerarik gertatu gabe.	
Leintz Udal Euskaltegia ○ Aretxabaletako Udalarekin batera udal euskaltegiaren egoera aztertu eta hobekuntzak planteatzeko lan-taldea martxan jarri. Gainera, azken urteetako ikasle-datuen azterketa sakona egin, herriko eta alfabetatze/euskalduntze taldeak diren zehaztuta. ○ Berbalagunak eta Auzoko egitasmoen eta Udal euskaltegiaren arteko harremana aztertu eta helburuak norabide berean jartzeaz gain, elkarlana planteatu. ○ Eskoriatzan antolatzen diren euskararen aldeko ekintzetan euskaltegiaren eta euskaltegiko ikasleen presentzia areagotu.	



5

LANA EGITEKO MODUA

Zeharlerrotasunez egingo da lan, gainontzeko **udal zerbitzuen** helburu eta estrategiak aintzat harturik eta beraien lan eremuan euskararen normalkuntzan eragiteko helburuak eta moduak adostuta. Bereziki, kultura, gazteria, hezkuntza, gizarte ongizatea, kirola eta garapen ekonomikoa sailekin izango da harreman estua.

Udal **kultura sailarekin** euskal-kulturan oinarritutako jaiak definitu eta diseinatzeko, irakurzaletasuna sustatzen eta kulturgintza eremuko sortzaileak eta dinamikak bultzatzen (euskal inauteria, gaba baltza, euskal jaia, literatura solasaldiak, juntaixe...). **Hezkuntza sailarekin**, bereziki, hezkuntza eremuko dinamikak koordinatzen (ahozkotasuna eta bertsolaritza, ikasleei buruzko datuak...). **Gazteria eta kirol sailekin** haur eta nerabeen aisialdiaren diagnostikoa, hizkuntza errefortzuak, ludoteka eta gaztelekua... baita arlo horietatik ematen diren dirulaguntzetan hizkuntza irizpideak zehazten ere. **Garapen ekonomikoko sailarekin** merkataritza eta ostalaritzaren eremuan euskara normalizatzeko planak gauzatzen.

Udalaz kanpoko eragileak ere aliatu izatea nahi da, gobernantza partekatua eta euskararen zeharkakotasuna gogoan izanik lan egin nahi da. Plan estrategiko hau lan-markoa izango da, baina aliatu izango diren eragileak identifikatu beharko ditugu.



6

JARRAIPENA eta EBALUAZIOA

Plan honek 2032.urterako ikuspegi jakin bat zehazten du. Hortaz, 2032rako aurreikusitako eszenatokirantz modu egokian goazen eta planaren azken urtean bertara iritsi garen ikusteko, jarraipena egin beharko da.

Hala, urtero Kudeaketa Plana egingo da, urtean landu nahi diren helburuen kronograma eta egitekoak jasoko dituen.

Lehenengo ebaluazioa 2027ko uztaila – abenduan egingo da. Kontuan izan behar da 2027ko maiatzean udal hauteskundeak izango direla eta gobernu aldaketa egongo dela. Halakoetan, ohiko lan-dinamika moteldu ohi da. Etena hausnarketa egiteko aprobetxatuko dugu eta udal berriarekin batera, aurrera begirako lan-ildoak doitzeko.

Bigarren ebaluazioa 2031ko uztaila – abenduan egingo da. 2032.urtean Plan Estrategiko berria diseinatu eta abenduan plenoan onartzeko prestatuko da.

Ebaluazioak egiteko, zenbait datu objektibo erabiliko dira:

- Kale Erabileraren neurketaren emaitzak. Epe honetan bi neurketa egingo dira: lehena 2026ko udazkenean eta bigarrena 2031ko udazkenean. Emaitzak 2027ko eta 2032ko udaberrian eskuratuko ditugu.
- Atzerriko jatorria duten herritarren portzentajea eta urteko egitasmoetan (Auzoko, euskaltegia, familia-lagunak...) izan duten parte-hartzearen bilakaera .
- Kulturartekotasuna eta euskara egitasmoan parte-hartu duten eragileak eta inplementatu diren neurriak.
- Aisialdi eskaintzaren hizkuntza bilakaera.
- Eremu funtzionalen bilakaera eta garapena.
- Euskararen presentzia bermatzen duten ostalaritza eta merkataritza establezimenduen kopurua eta hartutako konpromisoen betetze maila.
- Udal euskaltegiko ikasle kopurua eta profila.



ERANSKINAK



1.Eranskina

		Erakunde	Erakunde	Euskal kultura	Kultura	Ondarea	Familia Trasmisioa	Sentsibilizazioa	Ostalaritza / Merkataritza	Lan-mundua	Kulturartekotasuna	Aisialdia	Haurrak	Nerabeak	Gazteak	Euskaltzaleak elkartzea
1	EUSKALTEGIA: ohiko taldeak	1														
2	EUSKALTEGIA: hizkuntza etorkinak	1														
3	EUSKALTEGIA: sakontze errefortzuak	1	1													
4	EUSKALTEGIA: C1 trinkoa	1	1													
5	BERTSOLARITZA hezkuntzan (LH4,5,6)	1	1	1	1							1	1			
6	BERTSO ESKOLA	1	1	1	1							1	1			
7	AUZOKO							1			1					
8	BERBALAGUNAK		1													1
9	LUDOTEKA: aisi eskaintza		1									1	1			
10	LUDOTEKA: hizkuntza errefortzuak	1	1									1	1			
11	GAZTELEKUA		1									1		1		
12	LITERATURA SOLASALDIAK				1											1
13	LIBURU ERREZETAK haur txikientzat		1				1									
14	NERABEEN HIZKUNTZA PORTAERA EGOKIAK													1		
15	APPA HI APLIKAZIOA	1	1			1									1	
16	AHOTSAK.COM (eskoriatzarrak berbetan)					1										
17	ESKORIATZA IRUDITAN					1										
18	GABA BALTZA			1												
19	EUSKAL INAUTERIAK					1										
20	HAURREN AURREAN, HELDUAK HELDU		1				1	1								1
21	EUSKARALDIA		1					1								1
22	KORRIKA							1								1
23	EUSKAREN EGUNA							1								1
24	HARIXA		1							1						
25	EUSKARAZ BARRA BARRA		1						1							
26	e// ITZUL		1						1							
27	KULTUR ESKAINTZAN, EUSKAL ERREFERENTEAK				1											
28	ZeDEMONTRE		1	1	1											1
29	EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK	1														
30	KIROL ELKARTEARI DIRULAGUNTZA		1									1	1	1	1	1
31	ADINTXIKIKO AISIALDI JARDUEREN Htza JARRAIPENA		1									1	1	1		
32	MUSIKA ESKLARE HIZKUNTZA JARRAIPENA		1										1	1		
33	APELLIDOAK ABIZENDU						1	1								
34	ATSOLORRA, haur jaio berriei ongietorria										1		1			
35	ERROLDAKO DATUEN JARRAIPENA: etorkinak										1					
36	KALE ERABILERAREN NEURKETA		1					1								
37	DANTZA ESKOLA / D.IKASTAROA / D.TALDEA				1	1						1	1	1	1	1
38	ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ		1					1								
39	UDALEKUETAKO HEZITZAILEENTZAKO IKASTAROA		1					1					1			
40	TOPONIMIA					1										
41	KULTURARTEKOTASUNA ESKORIATZAN							1			1					
		9	22	4	6	6	3	10	2	1	4	8	10	6	4	6



2.Eranskina

EUSKARA SUSTAPENERAKO EKINTZAK, LAN-EREMUAK... 2024ko maiatza

EUSKALTEGIA

- **OHIKO TALDEAK:** Aurten Eskoriatzako 18 ikasle
- **HIZKUNTZA ETORKINENTZAKO ERREFORTZUAK:** Aurten Eskoriatzako 14 ikasle
 - Duela 18 urte hasitako egitasmoa
 - DBHra iristen diren ikasle etorkinentzako. Eskola-orduz kanpo euskaltegian eskaintzen dena. Astean ordu eta erdiko saio 1.
 - Hasieran iritsi berriak DBHra. Gaur egun halakoak ere badauden arren, DBHra LHn ibilitako hizkuntza etorkinak iristen dira, beraz 3 talde daude, euskara maila desberdinekoak. Hala ere, A1 mailara ez dira iristen errefortzu honetan daudenak.
 - Aretxabaletako Udalarekin eta ikastetxeekin lankidetzan gauzatzen dugu.
- **SAKONTZE ERREFORTZUAK:** Aurten Eskoriatzako 11 ikasle
 - 2024-2025 ikasturtean lehenengo aldiz sortu da taldea
 - DBHn komunikagarritasun nahikorik ez duten ikasleentzako errefortzua da. Eskola-orduz kanpo Euskaltegian eskaintzen dena. Astean ordu eta erdiko 2 saio egiten dituzte.
 - Aretxabaletako Udalarekin eta ikastetxeekin lankidetzan gauzatzen dugu.
- **C1 EGIAZTATZEKO IKASTARO TRINKOA:**
 - 2022an eskaini genuen lehenengo aldiz
 - Irailean egiten den ikastaro trinkoa da, urriaren egoten den C1 gaitasun azterketarako prestakuntza. Iazko irailean Eskoriatzako 3 ikasle ibili ziren. Aurten ere eskainiko da.
 - Jaurlaritzak 2024-2025 ikasturtean eskaintza berezia atera du 16-18 urteko ikasleentzako. Prestakuntza berezi hau urte osokoa da, astean ordu eta erdiko saioa + autoikaskuntza. Jaurlaritzak finantziatuak eta ikasleek 20 euro ordaindu dute. Almenen 38 ikasle ibili dira ikasturte osoan, eskola-orduz kanpo, prestakuntza hau egiten.



BERTSOLARITZA

- **AHOZKOTASUNA eta BERTSOLARITZA:** 22 urtez eskaintzen da herriko 2 ikastetxeetan LH 4, 5 eta 6. mailan eskaintzen da. Helburuak: bertsolaritza ezagutzea eta bertsolaritzan zaletzea, hizkuntza aberastea, mezua neurrira doitzea, mezua ondo aukeratzea...
- **HANKAMOTX BERTSO ESKOLA:**
 - 2014an helduen taldea sortu zen, 2015-2016an haurrena
 - 2016tik 2020ra haurren taldea egon zen martxan, eta 2020an bertan behera geratu
 - 2024-2025 ikasturtean 9 hurrekin hasi da berriro bertso eskola

AUZOKO

- 2013tik martxan dagoen egitasmoa, Euskaltzaleen Topaguneak kudeatzen duena
- Helburua herritar etorri berriei harrera linguistikoa egitea da.
- Herritar etorri berriak (auzokideak) eta bertakoak (auzotarrak) elkartzeko asmoa du, baina ez dugu auzotarrik bertaratzea lortzen.
- 2 talde daude martxan (urtean 15 bat lagun). Astean ordutebeteko saioa eta urtean zehar 4 bat ekintza berezi (talo ikastaroa, arepa ikastaroa...)

BERBALAGUNAK

- 2010etik martxan dagoen egitasmoa, gaur egun Euskaltzaleen Topaguneak kudeatzen duena.
- Astean, gutxienez, ordubeteko mintzapraktika. Bidelariak (praktika behar dutenak) eta bidelagunak (ondo dakitenak) batzen ditu.
- 3 talde ari dira momentu honetan, 20 bat lagun.

LUDOTEKA

- **OHIKO ESKAINTZA**
 - Duela 30 bat urte sortu zuen Axtroki euskara elkarteak, haurrentzako aisialdian euskarazko eremu naturala eskaintzeko helburuarekin. 3-12 urte bitarteko haurrentzako aisi-eskaintza euskaraz.
 - Txirikila elkarteak kudeatzen du. Astelehenetik ostiralera funtzionatzen du, 16:45 – 19:15 ordutegian.
 - Udalekuak ere bertatik antolatzen dira.
- **HIZKUNTZA ERREFORTZUAK**
 - 2010etik aurrera eskaintzen den zerbitzua da.
 - Adinari dagokion hizkuntza nahikotasunik ez duten haurrentzako errefortzua ludotekan eskaintzen da, haurrak batzen diren espazio natural batean eskaini nahi izan zelako hizkuntza errefortzua, ez aparteko zerbitzu gisa.



- Ikastetxeek identifikatzen dituzte errefortzu beharra duten ikasleak eta familiei komunikazioa ere beraiek egiten diete.
- Udalekuetara ere bideratzen dira errefortzuan dauden haurrak.
- Gehienak atzerritarrak dira, baina badaude bertako familietako umeak ere.
- 2023-2024 ikasturteko datuak:
 - Luis Ezeiza HH – Identifikatutakoak 16 – Ibiltakoak 12
 - Luis Ezeiza LH – Identifikatutakoak 44 – Ibiltakoak 34
 - Jose Arana - Identifikatutakoak 12 – Ibiltakoak 7
 - Almen – Identifikatutakoak 6 – Ibiltakoak 4

GAZTELEKUA

- Duela 30 bat urte sortutako aisi-eskaintza 12-16 urte bitarteko nerabeentzat.
- Txatxilipurdi elkarteak kudeatzen du. Ostiraletik igandera eskaintzen da.
- Euskara helburu nagusietako bat da, kuadrillen hizkuntza-portaerak aztertzen dira ikasturte hasieran.

LITERATURA SOLASALDIAK

- Euskarazko irakurzaletasuna sustatzeko egitasmoa, liburutegiak kudeatzen duena.
- Urtean 6-8 bat liburu irakurtzen dira. Taldean 6 bat herritar batzen dira. Irekia den arren, eta hilerio publizitatea egiten den arren, ez da jende berririk gerturatzen.
- Parte-hartzaileen perfila: 50 urtetik gorako emakumea

LIBURU ERREZETAK, haur txikien familientzat

- Udal liburutegiak kudeatzen du, eta osasun zentroan gauzatzen da.
- Haurren mediku-azterketetan, adinari egokitutako liburuak gomendatzen dira, eta horren artean “Gaurko euskara, gaur” liburuxka, edo euskarazko kantuen zerrenda banatzen dira.

NERABEENGAN HIZKUNTZA PORTAERA EGOKIAK SORTZEKO SAIOAK

- 2021-2022 ikasturtean EUSLIDERRAK tailerrak gauzatu ziren DBH3 eta 4.mailakok nerabeen artean euskararen aldeko hizkuntza portaerak sortzeko eta herrigintzan nerabeak aktibo izateko helburuarekin. 2 ikasturtean egin zen, baina balorazioa ez zen ona izan. AHIZKE AEK-k eskaini zituen tailerrok eta ikastetxean bertan gauzatu ziren, baina ikasleek boluntarioki parte-hartzen zuten.
- 2023-2024 ikasturtean Txatxilipurdiri eskatu zaio, helburu berberak izanik (herrigintza euskaratik), egitasmoa sortu eta gauzatu dezala ikastetxeetan. Saio batzuk egin diren arren, ez da lortu ikasleek boluntarioki parte-hartzea.
- 2024-2025 ikasturteko udazkenean saiakera berria egingo da.



APPAHI, hitanoa ikasteko aplikazioa

- 2023ko udazkenean kaleratutako aplikazioa, Badihardugu elkarteak egindakoa.
- Kaleratzeaz aparte ez da sustapen lan berezirik egin.
- Aurten hika hitz egiten duten herritar (gutxi) batzuen testigantzak batu ditugu eta gehiago ere batu ahal izango genituzke...

AHOTSAK.EUS (Eskoriatzarrak berbetan)

- Herritarren testigantzak jasotzeko 2002an hasitako egitasmoa. 77 hiztunen elkarrizketak jasota daude. Hasierako helburua euskalkia jasotzea izan bazen ere, testigantza horien bitartez Eskoriatzaren historia herritarren ikuspegitik ezagutzeko aukera eskaintzen du.
- Egitasmo bereziak egin ditugu, testigantzak baliatuta:
 - Inauteriak Eskoriatzan
 - Santa Ageda ohitura Eskoriatzan
 - San Juan ohitura Eskoriatzan
 - Hitanoa (egiteke)

GABA BALTZA / EUSKAL INAUTERIAK

- Euskal kutsua berreskuratu nahi dugu Gaba Baltzean eta inauterietan.
- GABA BALTZA
 - Gaba Baltza Duela urte batzuk hasi ginen, baina orain arte umeein egin izan da lanketa. Eskea, goxokiak... Ludoteka izan da bidelagun.
 - 2023an parte-hartzea handiagoa bilatu nahi izan dugu, eta helduak ere parte-hartzeko moduak bilatu (beldur-harrapakarien figura sortu, dantza taldeak parte-hartu, ...). Oraindik gorputza hartzea falta zaio...
- INAUTERIAK
 - Azken urteetan dantza taldeak emanaldia egin izan du, baina aurten erabaki zen inauteri martizena, euskal inauteri eguna izatea. Hori horrela:
 - Ikastetxeekin batera adostu zen goizean elkarrekin egiten duten emanaldiko arropak euskal inauterikoak izatea.
 - Nasteborraste dantza propioa sortu zen, E.Gorosarri txistulariak sortutako doinu batean oinarrituta. Eta ikastaroa antolatu zen, hori ikasteko
 - Arratsaldean dantzako kalejira egin zuten, Mielotxinekin eta plazan dantza-emanaldia.

HAURREN AURREAN, HELDUAK HELDU



- Euskaraldiaren dinamika berberarekin antolatzen den egitasmoa, baina 0-12 urte bitarteko hurrekin harremana duten helduei zuzendutakoa.
- 2023an egin zen 2.edizioa. 6/8 gurasoren laguntzarekin antolatu ziren zenbait ekintza (yoga tailerra, altzo-jolasak...)
- Ekimen hau antolatzea tokatzen ez denean ere, , familientzako euskarazko ekintzak antolatzea ondo baloratu zen. Aurten ere egin beharko genuke.
- Batez ere, guraso euskal hiztunengan eragitea lortu genuen, mintzapraktika beharra edo “erdal belarriprestengana” hurbiltzerik ez genuen lortu.

EUSKARALDIA

- 3 edizio egin dira. Euskal Herri mailako ekimena da. Eskoriatzan 1.edizioan parte-hartzea oso altua izan zen (301 Belarriprest eta 545 Ahobizik parte-hartu zuen, guztira 846 pertsona)
- Hurrengo edizioan txepelagoak izan dira (2020an pandemia betean geundelako eta 2022an gauzak oso hoztuta zeudelako eta Euskaraldiaren formatua erreta?)
- 2025eko maiatzean egingo da 4.edizioan, udaberrian; udazken betean izateak ez duela asko laguntzen baloratu zelako.

KORRIKA

- Bi urtez behin aktibatzen da, eta batzordea konbokatzen denean parte-hartze handia izaten da (ikastetxeak, elkarteak eta udala batu ohi gara).
- Aurten Huhezik parte-hartze berezia izan du eta eskolentzako ekintza-sorta ederra prestatu dute. Elkarlana oso interesgarria izan da, errepikatzeko modukoa. Nola eman forma?

EUSKARAREN EGUNA

- Jai formatuan antolatu ohi dugu. Herriko euskaltzaleen topaleku izan ohi da. Baina garaiak ez du asko laguntzen.
- Presentzia handia hartzen du, plaza erdian karpa erraldoia jartzen dugulako.
- Gazteekin antolatu izan dugu azkeneko 2 urteetan.
- 113 lagun batu ginen kantu-bazkarian. Talde-sena egon zen.

HARIXA – Debagoienean arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera eragiten

- 2023ko udazkenean hasi ginen.
- Debagoieneko Mankomunitateak, Jaurlaritzak eta GFak elkarlanean bideratutako egitasmoa da, eta herri bakoitzeko udalok ere parte-hartzen dugu. EMUN ari da egitasmoa gauzatzen. Eskoriatzako Udalean elkarlanean dihardugu garapen ekonomikoa eta euskara zerbitzuok.



- Herriko 25 langiletik gorako enpresak bisitatuko dira, euskararen erabilerari buruzko informazioa jasotzeko eta eragiten hasteko asmoarekin. 11 bat enpresa identifikatu ditugu eta ekaina/uztaila bitartean bisitatuko dira.

EUSKARAZ BARRA BARRA (e//)

- Merkataritza eta ostalaritzarako Jaurlaritzak 2022an sortutako hizkuntza-ziurtagiria da. Eskoriatzan 2024an gauzatzen hastea erabaki da.
- Ziurtagiri hori lortzeko baldintza da, establezimenduan uneoro euskaraz ulertzen duen langilea egotea, hala bezeroak euskara erabiltzeko aukera izan dezan.
- Eskoriatzan 19 establezimendu identifikatu ditugu eta horiekin hasiko gara. Establezimenduak aukeratzeko lehentasun hauek izan ditugu kontuan:
 - Establezimenduen zerrenda orokorra ateratzea.
 - Zerrenda orokor horretatik, lehentasuna ematea honako hauek: “Denda establezimenduak”, “Ileapaindegia, estetika zentroak” eta Axtroki Merkari Elkarteak diren establezimenduak.
- Bisitekin hasteko gaude oraindik, baina merkataria batzuei egitasmoa azaldu diegu eta jarrera ona izan da.

e// ITZUL

- e// ziurtagiria lortzeko baldintzarik betetzen ez dutenei eskainiko diegun zerbitzua da. Euren establezimenduetako kartelak itzultzeko.
- Merkataritza eta ostalaritzarako Jaurlaritzak 2022an sortutako hizkuntza-ziurtagiria da.
- Eskoriatzan 11 establezimendu identifikatu ditugu eta horiekin hasiko gara. Establezimenduak aukeratzeko lehentasun hauek izan ditugu kontuan:
 - Establezimendu ireki berrienak
 - Errotulua jartzeko edo/eta establezimenduk ireki edo eskualdatzeko udalak emandako dirulaguntza jaso dutenak
- Bisitekin hasteko gaude oraindik.

KULTUR ESKAINTZAN EUSKAL ERREFERENTEAK

- Ez da modu sistematikoan egiten. Eta gauzatzen dena, nahiko modu naturalean egiten da. Kultura teknikariak egiten du, baina “nobedadeak” edo interesekoak direnak ezagutu eta haien berri ematen da euskara zerbitzutik.
- Urtean zehar egiten diren kultura programazioan, euskarazko eskaintzari lekua egitea da helburua.

ZeDEMONTRE



- Herriko sortzaileei plazak eskaintzeko egitasmoa da.
- Musika, antzerki edo taularatu daitekeen edozein modalitate.
- Uztaileko ostiral baten egiten da.
- Jendeak parte-hartzea kostatu egiten zaitu.
- Euskarazko emanaldiek sarian apur bat gehiago jasotzen dute.

EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK

- Udal euskaltegian HABEk jarritako prezioak mantendu beharra dago. Baina Aretxabaletako eta Eskoriatzako Udalok euskaltegiarekin elkarlanean hobari sistema zabala diseinatu genuen 2021.urtean.
- Gainera, HABEk baldintza zehatz batzuk betetzen dituzten ikasleei, matrikularen %100a itzultzen die. Baldintza horietako bat ikas-maila egiaztatzea da.
- Beraz, badaudenez ikas-maila egiaztatzea lortzen ez dutenak, edo egiaztatzeko beharrik ez dutenak, Udalak urtero dirulaguntza lerro bat zabaltzen du. Dirulaguntza horrekin udal euskaltegian ibilitako ikasleei, ordaindu duten matrikularen %60a itzultzen zaie eta beste euskaltegi edo barnetegi baten ibilitakoei matrikularen %50a.
- Urtero 3-4 eskaera tramitatzen ditugu.

ADINTXIKIKOEN AISIALDI JARDUERETAN EUSKARAREN NORMALIZAZIOAN ERAGITEA

Helburua 16 urtetik beherakoentzako aisialdia euskaraz izatea. Helburu hori buruan, lehentasuna eman genien kirol arloko aisialdi jarduerari (bereziki EKE) eta musika eskolari. 2013an hasi ginen kirol arloko elkarteekin eta musika eskolarekin.

Kirol arloan aurrerago azalduko diren ahaleginak egin arren, 2019an ikusi genuen, aurrerapenak oso txikiak zirela eta plangintza doitu genuen oinarri hauek finkatuz:

- Onuradun bakoitzaren hizkuntza errealitatea kontuan hartuko zen planifikazioa egiteko.
- 2018.urte bukaeran elkarte bakoitzak aitortu zuen hizkuntza egoeratik aurrera egitea, inoiz ez atzera.
- LH osoko kirola D eredukoa izatea 2019.urtean, eta 3-4 urteko epean DBH artekoa.

2019an planifikatu, 2020an pandemia etorri eta gaur egun arte, gehiena hankaz gora daukagu arlo honetan.

ESKORIATZA KIROL ELKARTEA



- Lehenetsunezko zatitatu identifikatu genuen haur eta gazte kopuru handia dabilako bertan eta funtzionamendua (ia) erabat gaitelazkoa zelako.
- 2013. urte bukaeran erabaki zen EKEekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenean hizkuntza klausula espezifikoa sartzea eta horren truke, 2000 euro gehitzea ohiko dirulaguntzari.
- 10 urtean jaso du 2000 euroko dirulaguntza hori, nahiz eta eskatutako hizkuntza baldintzak ez bete.
- 2024. urtean ez da hitzarmenik sinatu oraindik, eta ez da aztertu hizkuntza klausulak jarri ala ez.

BESTE KIROL ELKARTE BATZUK: Arizmendi kirol elkartearen eta Kenpo

- Hauen hitzarmenetan ere jartzen dira hizkuntza klausulak, baina klausula horiek ez daude diru-ekarpenari lotuta.
- Arizmendik euskaraz funtzionatzen du
- Kenpok gaitelaz – jarrera ez da txarra, baina arduradunaren hizkuntza-ezagutzak baldintzatzen du.
- Ez da neurtze/aztertzen: gimnasia erritmikoa

MUSIKA ESKOLA

- Urtero egiten da hizkuntza neurketa.
- Kontratazio berrietan euskara dakitenak kontratatzea eskatzen zaie, eta eskaraz dakiten irakasleek klaseak euskaraz ematea. Jendaurreko emanaldietan eta komunikazioetan euskara lehenestea.
- Musika eskolen federazioak ateratako material digital berria erabiltzen dute, euskaraz ere badagoena.
- Klaseen %62a euskaraz ematen dute gaur egun. 12 irakasletik 9k euskarazko gaitasuna dute eta 3k ez.

APELLIDOAK ABIZENDU

- Duela 10 urte egin zen azkenekoz, baina aurten 2023ko haur jaioberrien zerrendan errepasatzen, eta TipiTapa guraso elkartearen martxan dagoela aprobetxatuta, une egokia izan daiteke tramitazio honen berri zabaltzeko eta guraso-berriak hartara animatzeko.

ATSOLORRA, haur jaio berriei ongietorria

- 2022. urtean antolatu zen lehenengoz, sanpedro bezperan haur jaio berriei ongietorria emateko ekitaldia.



- 2023.urtean ATSOLOKRA kontzeptua ezagutu eta gehitu zitzaion. Atsolokra zen 70.hamarkadara arte Euskal Herrian indarrean egon zen ohitura, ama erditu-berriari herriko emakumeak bisitan joaten zitzaizkion, babesa eta laguntza eskaintzera.
- Hasieran ongi-etorri “instituzionala” edo zenari, zentzua eman nahi izan zitzaion 2023.urtean eta orduan parte-hartu zuten gurasoen ekarpenak entzunda, 2024an sakonago aztertu da, eta hizkuntza-ikuspegia ere gehitu nahi zaio.
- Hala, jakin dugu 2023an jaiotako 23 haurretatik 10ek atzeritar-jatorriko ama edo/eta aita dutela. Saiatuko gara horiek ere parte-har dezaten ongi-etorri ekitaldian. Haur bakoitzari jaietako zapia emateaz gainera, bertso-eskolak propio beretzako sortutako bertsoa oparituko zaio idatziz. Aztertzen dihardugu, ekitaldian bertan “beste hizkuntzatarako” itzulpenik eskaini ahal izango dugun.

ERROLDAKO DATUEN JARRAIPENA: etorkinak

- 2000.urteaz geroztik, urtero, urtarilaren 1eko errolda aztertzen da etorkin kopurua.
- 2024an 426 dira etorkinak (eskoriatarren %10) eta adin txikikoak 84.
- Erroldatzen diren hizkuntza etorkin helduei, AUZOKO egitasmoan parte-hartzeko deia egiten zaie.
- 2024an lehenengoz neurtu dugu urte bakoitzean jaiotako haurren artean atzerriko jatorria dutenak zenbat diren, eta azken 4 urteetako datuak batu ditugu:
 - 2020 – 16/6 (%37)
 - 2021 - 27/10 (%37)
 - 2022 – 34/13 (%38)
 - 2023 – 23/10 (%43)

KALE ERABILERAREN NEURKETA

- 2003.urtean egin zen lehenengoz, eta azkena 2021ekoa da.
- Hasieran 2 urtez behin egiten zen, baina 2011.urteaz geroztik Euskal Herriko neurketa orokorrarekin batera egiten da, 5 urtean behin.
- Soziolinguistika Klusterrak egiten du.
- Bilakaera irudikatzeko hauek dira lehenengo eta azken neurketako datuak:
 - **2003:** euskaraz %29,9 gazteleraz %70,1 beste bat (ez zen neurtu)
 - **2021:** euskaraz %29,2 gazteleraz %69,6 beste bat %1,2

DANTZA ESKOLA / DANTZA IKASTAROAK / DANTZA TALDEA

- Euskal dantza taldeak Eskoriatzan urte askoan indar handia izan bazuen ere, 90.hamarkada bukaera aldera, bertan behera geratu zen mugimendu.



- 2000.urte inguruan musika eskolari eskatu genion euskal dantzak eskaintzea eta musika irakasteko kontratatzen ziren langileen baldintza beretan kontratatzea dantza-irakaslea ere, horrela boluntariotzan oinarritutako eredutik aldenduz eta jarraikortasuna bermatu zuelakoan.
- Harrez gero, indar handiago edo txikiagorekin makina bat haur pasa dira dantza klaseetatik, eta heldu batzuk.
- 2024.urtean gazte-heldu talde bat prest agertu da Gorosarri dantza taldea berriz martxan jartzeko. Udalak baliabide ekonomikoak ipini ditu, horretan laguntzeko. Beraz, herrian euskara ardatz duen talde berri bat sortuko da.
- Horrez gain, Larrain dantza ikastaroa egin zen 2022an lehenengoz, eta indarrean mantentzen da Ferixa egunean.
- 2024an, gainera, fandango eta arin-arin ikastaroak ere eskaini dira.

ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ

- GFAk Ogasunarekin Errenta Aitorpena euskaraz egiteko herritarren artean eragin dezala eskatzen dio Udalari.
- Mankomunitate mailan 2007az geroztik urtero kanpaina bateratua egin izan dugu zenbait urtean, baina Eskoriatzan azkena 2013an egin genuen.
- Azkeneko datua 2022ko kanpainakoa da, eskoriatzarren %22ak egin zuen errenta aitorpena euskaraz. Bailarako portzentaia txikiena da, Arrasaten %27a da. Altuena Antzuolakoa da, %86.

UDALEKUETAKO HEZITZAILEENTZAKO IKASTAROAK

- Haurrek artean euskararen erabilera sustatzeko estrategiei buruzko ikastaroa eskaini izan zaie udalekuetako hezitzaileei. Iaz ere eskaini zen. Baina nahiko “aspergarria” da kontatzen dieguna, errepikakorra, ez da aisialdiko ikuspegiarekin lan egin izan, eta hezitzaileek ez dute “behar” moduan identifikatzen.
- 2024an ez da egingo.

TOPONIMIA

- BASERRIEN ERROTULAZIOA:
 - 2010.urtean baserrietako izenak jaso eta hala nahi izan zuten elizateetako baserriak identifikatu egin ziren. (Mendiola, Bolibar, Gellao, Mazmela, “Lete”)
 - 2016an aurretik egin barik geratu ziren beste 2 elizateetako baserriak identifikatu ziren. (Marin eta Zarimutz)
 - Apotzagako baserriek errotulatu barik jarraitzen dute.



- Errotulu asko konpondu beharrean daude.
- TOPONIMIA AZTERKETA: 2011-2014 urteetan egin zen. Informazioa jasota dago. Mapa toponimikoa badago. Faltako litzeke:
 - Jendaurrean, eskuragarri jartzea.
 - Esan izan da iturriak errotulatzea, ibilbideak markatzea... egin daitekeela.

EUSKARA eta KULTURARTEKOTASUNA ESKORIATZAN

- 2024-2025 ikasturtean martxan jarriko dugun egitasmoa da.
- Azken 3 urteetan UEMAko herrietan identifikatutako behar bati erantzunez HUHEZIK bideratu duen egitasmoa da oinarria. Baina orain arteko lanketa udalerrri euskaldunetan egin da, hau da hizkuntza baldintza onak dauden herrietan.
- Eskoriatzako Udalak Huheziri eskatu dio egitasmoa beste tipologiako herri baten proba dezala, Eskoriatzan, hain zuzen ere ezagutza eta erabilera datuak askoz txikiagoak izanik, egitasmoak doikuntza beharko baitu.
- HUHEZIK proposamena onartu eta bere aholkularitzapean gauzatuko da. Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailean eta Hezkuntza Sailean pilotajerako laguntza eskatu dugu, eta harrera ona izan du.
- Helburu nagusiak:
 - Euskaraz bizitzea
 - Ikastetxeetan familia guztiekin komunikazio eta giro abegikorra bermatzea. Baita euskaraz ez dakitenekin ere.
 - Euskalduntasunetik kulturartekotasuna eraikitzea.
- Talde Eragilea sortuko da eta bertan parte-hartzeko gonbidapena egingo diegu:
 - Udal teknikari eta zinegotziak (euskara, gazteria, hezkuntza, gizarte...)
 - Ikastetxeak (Luis Ezeiza, Jose Arana eta Almen LH – ONARTU DUTE)
 - Auzoko
 - Euskaltegia
 - Ludoteka
 - Tipi-Tapa guraso elkarteak
 - Energia komunitatea
 - Feminista taldea
- Ekaina/Uztailean formazio saio 2 egingo dira eta irailean martxan jartzea da asmoa.

2024ko maiatza